

1. GAIA: ANTZINAROTIK ERDI ARORAKO TRANTSIZIOA

BEHE INPERIOA

Zein trantsizio?

Idea klasikoak → katastrofismoa

- Zibilizazioa basakeriaren kontra
- Zibilizazioaren ideiak kolonialismoa zuritu.

XIX. mendean kanpokoak karakterizatu → besteak gure kontrakoa

Hasiera batean Ipar Afrikan turismo sexuala/odalisca..., gaur egun alderantziz. 'Nire eredia jarraitzen ez duena → Barbaroa'

Ortogonaltasuna (ordenatua) ez da erromatarra, frantsesa baizik (kolonialismoa).



Marxismoa: Transizioa

- Transizioaren esanahia
- Marxismo klasikoa: Engels
- Estrukturalismoa: Iraultza Feudala

Komunismo primitiboa → historiaurrea → esklabismoa (kapitalismoa) → sozialismoa
(?) Erdi Aroko esklabismotik feudalismora → Iraultza Feudala (**Althusser**)

ANTZINARO BERANTJARREKO ERROMA

ESTATUA, OSAGAI NAGUSI

- Inperioaren zatiketa (Augusto + Zesar)
 - Tetrarkia: Dioklentziano (284-305).
 - Inperioa handiegia zenez banatzea erabaki zuten.
 - Konstantino → kristautasuna
 - Juliano el Apostata → erlijio klasikora bueltatu
 - Teodosio (379-395) → katolizismoa inposatu
- Antolaketaren konplexutasuna
 - Praefekturak eta prefektua
 - Garai hartako Erroma →
 - Diozesiak: Bikarioa
 - Probintzia: Gobernadorea
 - *Civitas, Urbs* (Pompaelo)
- Burokraziaren jaiotza; erroldak
- Hiria, sistemaren lotunea
 - Hiri erromatarra:
 - Osagaiak eta espzioen eraldaketa
 - Harresiak
 - Ebergetismo delakoa
- Sistema fiskala eta merkataritza
 - Mediterraneo itsasoa
 - *Villae* eta landa populatzea

HIRI KOKALEKUAK

HIRI TRAZADURAREN DISOLBATZEA

- Eremu errepresentatiboen eraldaketa
 - Kalea: industria osagaien agertzea / okupazioa
 - Antzertia eta gotorlekuak: gotortzea
 - Garaipen-arkuak: ate goraipatuak
- Materialen berrerabilpena
 - Gakoz eustea
 - Zutabe-danborrak

ANTZINARO BERANTIARREKO ERROMA

MERKATARITZA ETA SISTEMA FISKALA

- Sistemaren koherentzia
 - Lurralde aberatsek lurralde pobreen guarnizioak honitzen zituzten: pago con
 - Pobresos curiales: La aristocracia senatorial
- 439: Bandaloek *Africa Proconsularis* konkistatzen dute → lurralderik aberatsena galtzen da.
- Kanporantz → sistemaren desegituratzea
 - Ekoizpen lokalak
 - Ekonomiaren murriztapen gogorra
- Behe inperioko *villa*.
 - *Pars urbana* → jabea bizi da (aberatsa ala ez)
 - *Pars rustica* → ekoizteko tokia (olioa, anforak...)
- *Pars rustica* ulertzeko *pars urbana* ulertu behar da. Depende *pars rustica* nolakoa den, *pars urbana* aberatsa da edo ez.
- Inperioan produkzioa esklabuek → esklabuak mantentzea ez da komenigarria.
- Langileekiko harremana aldatzen du eta jopu bihurtzen dira.

ZERAMIKA AFRIKARRAREN HEDAPENA (I-V. mendeak) ; Afrikatik, mediterraneo osora.

1. Merkatuaren haustura:
 - Mediterraneo itsasoa
 - Monte Testaccio
2. Mendebaldeko inperioaren azken mendeak
3. Formak: sukaldeko zeramika, sutarako zeramika
4. Ekoizpena (LABEAK)
 - ekoizteko azpiegitura
 - garraioa; bide sareak + ibaiak/ itsas merkataritza (portuak)
 - eskaria: banaketa sarea
 - estatua + partikularrak: azpiegitureen konterbazioa (estatua); ekoizpen + salmenta (ekoizle lokal + merkataria)
5. Merkatuaren murrizketa
 - eskuz egindako zeramika
 - biziraupena (<VII. mendea)
 - tailer lokalak: Hego Italia + Rhin inguruan.

ELIZA ANTZINARO BERANTIARREAN

KRISTAUTASUNAREN OFIZIALIZAZIOA

- Kristautasunaren jatorria
- Erromak hartzea
 - Milaneko ediktua (Konstantino 313)

- Nikeia I-eko kontzilioa (325)
 - Kontzilio ekumenikoa eta Konstantino
 - Enperadorearen erlijioa
- Tesalonikako ediktua (Teodosio 380)
 - Heresiako kondena
 - Erreakzioa: Liburutegien su ematea (415, Hipatia)
- Instituzioaren “erromanizatzea”
 - Hierarkia
 - Basilika

ELIZAREN DOGMAK

KRISTAUTASUNAREN JATORRIA

- Jatorri geografikoa: Palestina
- Judutasunarekiko erlazioa: Erlijio Abrahamikoak
- Kristautasunaren ezaugarriak
 - Erlijio eskusibista: benetako jainko bat bakarrik.
 - Erlijio unibertsala
- Botereekiko erlazioa (<311):
 - Erroma
 - Axolagabetasuna edo jazarpena
 - Ezartzea hirietan: “paganoak”
 - Pertsia sasandarra:
 - Zoroastrismoa → axolatasuna
 - Ekialdeko zenobio-mugimendua eta zentruak

ELIZAREN ANTOLAKETA

- Nikeia I (325)
 - gortzaina, hiraren gobernuaren erpinean
 - probintziako hiriburua: Metropoliko eliza; artzepezpikua
 - menpeko gortzainak
- Konstantinopla I (381)
 - Gortzainen prelatzioa; erroma + alexandria (pentapolis eta egipto) + antiokia
- Kaltzedonia (451)
 - Berriak: Jerusalem (Palestina) + konstantinopla (erroma berria) + patriarkako titulua
- Erromako problema; Patriarka ekumenikoa

2. GAIA ARABIARRAK ETA MUSULMANA (ISLAMAREN SORRERA)

TRIBUAK ETA LEINUAK

Eponimoa → leinu (familia zabala) bat fundatzen duena.

- **Arabiarra** izatea → mundu arabiarrean erlijio ezberdin asko daude. Arabiarra izatea

irizpide antropologikoen araberakoa da.

Gizon arabiar baten alaba edo semeak dira arabiarrek, amarena berdin da. Berdina gertatzen da judutarrekin, norbaitek ama judutarra bada, bera ere bada.

- **Familia agnatikoa** → leinua bakarrik gizonaen (aitaren) bidez transmititzen da.
- Leinuak emakumeak behar ditu mantendu ahal izateko, horregatik emakumea 'altxor preziatuena'. Emakumeak lortzeko gerrak, eta opari bezala erabiltzen dira.

Kanpoko emakumeak bertara ekartzen dira.

- Anai-arrebak ezin dira ezkondu, baina lehengusu-lehengusinak bai. Hau hobekien ikusita dagoen ezkontza da (lehentasunezko ezkontza).

○ Aitaren anaiaren alabarekin → BINT AL-ʿAM = بنت العم

- Nire anaia hil bada, bere emaztearekin ezkondu behar naiz.

- **Poligamia** → emakume batekin baino gehiago ezkontzea.

- **Poliginia** → emakume askorekin harreman instituzionalizatu (ez daude ezkondu baina 'harreman serio' bat izango litzateke) bat edukitzea baina ez dauka zertan ezkontza izan. Haiekin bizi da gizona eta familiaren parte dira, horregatik eskubide batzuk dituzte.

Berdin du zein harreman mota daukan gizonak emakumeekin, bera leinukoa bada, seme-alabak ere izango dira.

- Gizonak esklabu batekin seme edo alaba bat edukitzen badu, umea askea izango da, eta gainera amari askatasuna ezarriko zaio → gizonak eskubideak transmititzen ditu.

- **Harem** → gizonak emakumeak edukitzeko tokia.


- Leinu batean ez dagoena ez da ezer, beti leinu baten barruan egon behar da.

- **Adopzioetan** (WALĀʿ = والء → (odolez ez da leinukoan, baina juridikoki bai. Hori dela eta, besteen eskubide berdinak ditu. Hasiera batean familiakoek badakite ez dela odolez leinukoa, baina handik bi generaziotara ez du inork jakingo.

- **Emigranteak** (MARWĀN = مروان → (gizon batek beste toki batera joatea erabakitzen badu, eta



bertan ezkondu egiten bada, bere leinu propioa hasiko du (Segmentazioa)



= BANŪ MARWĀN = مروان بنو. (Hala ere, denak leinu berekoak izaten jarraituko dute, nahiz eta aitaren abizena erabiliko duten.



- Anaien artean arazoak (anaia anaiaren kontra) → haien artean konponduko dute.
- Lehengusuek arazoak badituzte, anai-arreba guztiak, anai-arreba guztien aurka.
- Kanpotar batekin arazoak → leinu guztia bere aurka
- ءAŞABIYYA = عصبية → zure leinuaren alde borrokatzeko printzipioa.
- Lehendabiziko arabiarra → **ADAM** = ادم

ARABIARRAK ISLAMA BAINO LEHEN

NOMADAK ETA SEDENTARIOAK

Arabiar gehiena hirietan bizi zen. Leinuek jendea toki askotan edukitzen dute.

- Nomadismoa → arrazoi batekin toki batetik bestera mugitzea
 - Fama txarra (gerrak, lapurretak...).
 - Lortutako gauzak merkatuan saltzen zituzten.
 - Jardun ekonomikoa
 - Abeltzaintzari eta transhumantziari lotuta
 - Besteak: ehiza, gerra, merkataritza (salgaiak eraman)
 - Urtaroko desplazamenduak, abereen zikloen arabera
 - SASOI-KOKALEKUAK: kanpamentuak
- Sedentarismoa
 - Jarduera ekonomikoa
 - Nekazaritza
 - Besteak: merkataritza (sakabanaketa)
 - Ezarmendu egonkorrak
 - Gizabanakoak herri eta hirietan biltzen dira
 - Hiriak zentro neuralgikoak, bertan
 - Agintariak, leku errepresentatiboak
 - Merakatuak

ARABIARREN ERLIJIOA (621.urte inguruan)

- Arabiarrentzat oso erreza zen kristautasuna, erlijio hori han sortu zelako (Palestinan), tradizio batetik, tradizio hau Abrahamikoa zen. Abrahamek bere emaztearekin ezin izan zituen umerik eduki, bere esklabu batekin eduki zuen ume bat (Ismael). Aldi berean, bere emazteak beste seme bat eman zion (Isaac). **Ismael musulmanen arbasoa izango zen eta Isaac judutarrena** (mitikoki).
- Arabiarrentzat erraza izan zen kristautasuna hartzea, antzekotasun asko zituelako, eta erlijio honen sustraiak bertan zituztelako.
- Mugimendu migratorioak.

ISLAMAREN SORRERA:

MUHAMMAD PROFETA

APUNTE BIOGRAFIKOAK

- 570: Makkan jaio
- Merkataria, Qurayş-eko tribuaren kidea
- Errebelazioa (Mekako garaia): 610 o 612
 - Korana: 114 sura, alayatan zatitua
 - Transmisio era
- 622:
 - Medinarako emigrazioa (*hiyra*): *Yaṭrib* → Medina
 - Medinako konstituzioa eta 1. estatu islamikoa

- Prestigioaren areagotzea: bitartekaritza
- Konkistak: Meka
- 632: izurriteak jota hiltzen da Mekan

Yibril jainkoak diktatu zion jainkoaren mezua. Berak ez zekien idazten, horregatik Makkara joan zen eta bertako herritarrei kontatu zion diktatutakoa. Mezu hau guztiz monoteista zen. Bere leinukoekin arazoak edukitzen hasiko da, besteek esaten dutelako erlijio hori ez dela errealia. Orduan, bera eta sinisten diotenak Medinara joango dira. Bertan, Muhammadek ikusiko du hango jendeak leinukoekin borrokak edukitzen zituztela, eta Muhammad hango talde guztien bitartekaria bihurtuko da. Taldeekin akordio batera helduko da, eta Medinako Konstituzioa idatziko du, estatu islamikoaren oinarriak izango direnak.

Berak esaten du leinu bakoitzak bere kabuz eta bere arauak ezarriz, arazoak konpondu behar dituztela. Orduan, alde batetik, leinuen burujabetasuna sortzen du. Gainera, *Umma* deritzon musulman guztien elkarte eratu du. Muhammadek sortutako leinu honetan parte hartzeko esan behar da Allah jainko bakarra dela eta Muhammad gidaria. Elkarte honen fededuna izateko nahikoa da konbertitzea, erlijio unibertsal bat izango da, eta ez du odolarekin zeikusirik edukiko. Ezaugarri hau berria izango da, eta horregatik *Muhammeden Iraultza* bezala konsideratzen da batzuetan. Komunitate honetan anaitasun antzeko bat sortzen da, eta horregatik elkarren artean babestea zuten helburu: hildakoen familiak babestu (babesa soziala) eta elkarrenganako defentsa eta babesa nagusitzen ziren (taldearen elkartasuna).

Gizarte islamiko batean, musulmana izan gabe bizi den pertsonen Dhimmi deritze. Erlijio berri hau unibertsala da, eta ez da oso eskusibista. Islamak esaten du musulmanek pribilegio gehiago dituztela, baina kasu honetan ez du horrela funtzionatzen. Erlijio hauek 'liburuko erlijioak' deritze, denek daukatelako liburu bera: Biblia, eta denek daukate jainko bera amankomunean.

Nahi duena konbertitu daiteke, eta jainkoarekin daukan harremana zuzena da, horregatik, norbait konbertitzen ez bada, ez da zure arazoa izango.

Muhammadek arrakasta handia edukiko du Medinan. Gerra baten ondoren, Makka konkistatuko dute eta Medina eta Makkaren artean zabalduko da erlijioa.

ERLIJIO BERRIARI BURUZKO PUNTU BATZUK

- **JAINKOA: bat, guztiahalduna, sortzailea eta epailea.**
 - Musulmanek esaten dute kristauak politeistak direla, jainkoak seme bat eduki zuelako eta horregatik Kristo eta jainkoa aldi berean gurtzen zituztelako.
- PROFETAK
 - Beti dira gizonak, hau da, ez dira jainkoak, jende normala dira.
- PROSELITISMOA
 - Erlijiora sartzen konbertitzea da proselitismoa.
 - Islamak ez du egiten.
- ISLAMAREN ZUTABEAK
 - Bost arau bete behar dituzte:
 - Fedearen aldarrikapena (šahāda → شهادة). (Allah dela jainko bakarra eta Muhammad dela bere profeta bakarra. Musulmana izateko 2 aukera: hiru aldiz esatea Allah jainkoa dela eta arabiar edo leinukide baten seme edo alaba bazara.
 - Otoitza (šalat → صلاة 5 aldiz errezatu)
 - Karitatea (zakat → زكاة)
 - Baraua (šawm → صوم). Musulman guztiek Ramadan-a egin behar dute. Dietari dagokionez, txerriak jatea eta ardoa edatea debekatuta dago.

- Elikagaiak: Haram eta Halal
- Konkisten ondorioak:
 - *VILLAE*-en ekonomia
- Mekarako pelegrinazioa (ḥajj → حَجَّ) . Bizitzan behin egin behar dute eta honen ondorioz batasun handia lortu izan da.

Mundua bi zatitan banatzen zuten: musulmanak zirenak eta ez zirenak (*dimmiak*). Agintarien arabera bi eremu: Lege Islamikoa indarrean dagoena, jende guztiak aitortzen duela lur hori Ummarena dela.

Imam → Islamaren barruan, komunitateko liderraren izaera duen kargua da, gehienetan meskita bateko errezoen arduraduna eta, beraz, musulmanen komunitatean pisuzko pertsona. Askotan komunitatea meskitako imamarengana joan daiteke galdera erlijiosoen erantzunen bila.

Elizan → jainkoa dago

Mezkita → ez da toki sakratu bat jainkoa toki guztietan dagoelako, otoitz egiteko toki bat soilik.

MEZKITAREN PARTEAK

1. Estalia (otoitz egiteko) → Zulla
 - a. *Mihrab*-a. Zulo bat, meka seinalatzen duena.
 - b. *Minbar*-a
 - c. *Qibla*-ko horma
 - d. *Maqsura*
 - e. Nabeak edo *Balatat*-a
2. Patioa (*Sahan*). Bizitza soziala egiten da, plaza nagusiaren rola betetzen du.
3. Alminara (*Al-Manar*).



Ribat-etan yihad-a egiten duen jendea bizi da. Jendeak urte batzuk pasatzen dituzte bertan militarki prestatzen (kuartel antzekoak).

KALIFA ZUZENAK **(RAŠIDŪN), 632-661**

Islama gutxinaka Arabiar penintsula osoan zehar zabaltzen joan zen. 632an Muhammad profeta hil egin zen. Garai honetarako, estatuaren oinarriak ezarrita zeuden, baina ez zuen bere ondorengoa aukeratu. Ummak, bere buruari galdetu zion ea nor izango zen, eta beraien artean aukeratzea erabaki zuten.

Abu Bakr izango zen bere ondorengoa, lehen kalifa izango zena. Bera hil ondoren, Umar izendatu zuten.

Umar kalifaren garaian Siria, Alejandria, sasandarren hiribura (Ktesifon), Persiako zati bat... konkistatzen dute 10 urteren buruan. Gerra hau arabiarrek arabiarren aurka izan zen, baina bien arteko leinuetan loturak zeudenez, 'batuta' amaitu zuten.

SIRIAKO KONKISTA (634-640)

6 urteren buruan Bizantzioko leku asko konkistatu zituzten, haien artean Jerusalem. Lekuak konkistatzeko bi modu zituzten:

1. Gerra: Gizon helduak hiltzen dituzte eta emakumeak eta haurrak esklabu bezala

hartzen dira. Hemen, jende indartsuak hil egiten dira, esklabuen beste ikuspuntu bat dagoelako, eta hauek etxeko lanetarako edo poliginian sartzeko erabiltzen ziren (*Haremak*).

2. **Paktua**: alde batetik Kalifa, musulmanen aldetik, eta bestetik, hiriaren aldetik, agintari nagusiaren (gehienetan gotzain bat) artean egiten zuten paktua. Beti bi atalek hatzen dute parte, musulmanak eta hiriko agintari nagusiak.

Jerusalemeko Kapitulario Ituna (638)

Jerusalemeko konkista ez da erlijioso. Hiriko arauak errespetatzen dira baina Ummakoak ez direnek *Yizya* ordaindu behar dute (zerga bat), horrela Ummako erlijoa nagusiena zela onartuz. Horrela kristauak errespetatzen zituzten baina zerga bat ordaindu behar zuten batzuk konbertitzea lortu zuten.

Dimmi babesa jasotzen duen pertsona da, baina hori lortzeko ordaindu egin behar du.

IRAQ-EN KONKISTA

(Iraq = Pertsia)

Inperio Sasandarrean erlijioak familia bakarrik salbatzen du.

Arabiarrek beste arabiarrei sabaltzen dizkiete ateak, horrela pixkanaka hiriak hartuz.

Berehala Ktesifon, sasandarren hiriburua konkistatu zuten.

Pertsia konkistatzen dutenean musulmanek, bi hiri fundatuko dituzte: Kufa eta Basora. Oso hiri planifikatuak ziren.

EGIPTOREN KONKISTA

Egipton, kristauen artean arazoak zeuden, bi korrante: enperadorearen aldekoak eta monofisitak (Kopto = kristautasunaren adar bat). Monofistek esaten dutena musulmanek esaten dutenetik oso gertu zegoen, beraz, Egipto berehala konkistatu zuten musulmanek, izan ere monofisiten ustetan: musulmanak nire etsaiaren aurka (enperadorea) badaude, nire alde daudela uste zuten..

Garai horretan hiriburua: Alejandria.

ʿUTMĀN IBN ʿAFFĀN KALIFA (644 – 656)

Utman kalifa berria agertuko da, famatua dena Koranaren kodifikazioa egin zuelako. Jainkoaren mezua aldatzen zegoela pentsatzen zuenez, Muhammaden mezua idazteko batu zuten jendea, horrela mezua ez aldatzeko. Jendea batzeko irizpideak: zuzena izan behar zuten mezua, beraz, Muhammadetik zuzenean entzun zutenak eta musulman onak zirenak. Horrela Jainkoaren azkenengo mezua erredaktatuz: Hortik atera zen gaur egun ezagutzen dugun Korana.

Honetaz gain, egutegi bat ezarriko du arabiarren egutegia oinarritzat hartuz. Laburragoa da, ilargi-hilabeteak direlako. Lehenengo urtea 622 (Muhammad Medinara heldu zenean). Hil zenean arazo dinastiko bat egon zen: ondorengotza. Batzuen ustez le gitimitatea Ali izan zitekeen bere alabarekin ezkondata zegoelako, baina beste batzuek aldiz, legitimitatea Umeyyak zuen. Hemendik ezizio bat sortu zen: Š/ʿA.

KALIFERRI Umayarra (661-750)

- Suni → Gehiengoak dira gaur egun. Hauen jainkoarekiko harremana askoz zuzenagoa da.
- Chiita → Mistikoagoak dira.

Bien arteko harremana ez da txarra, esaterako, Palestinan elkarrekin bizi dira. Gerra zibila Umayyarrek (Suniek) irabazi zuten, eta horregatik Chiitak ezkutatuta geratu ziren. Gerraren ondoren, dinastia berri bat sortu zen. Garai honetara arte ez zegoen benetako dinastiarik, baina hemendik aurrera aita hasiko da bere hurrengo aukeratzen. 685. urtean, gerra dinastiko bat hasiko da, eta beste leinu batek irabaziko du. ʿAbd Al-Malik

Hirietan Kalifak gobernadoreak jartzen ditu

ARABIZAZIOA ETA ISLAMIZAZIOA

Arabizazioaz hitz egiten dugunean, kontzeptua etnikoa da, hau da, arabiarra izateko arabiar baten seme/alaba izan behar da.

Akulturazioa → besteen kultura onartzea. Kultura edo etnia bat goian dagoenean, imitatzen edo ikasten hastea.

Gotzainek arabiarrez egiten zuten administrazioarekin kontaktua mantentzeko. Islamizazio politikoa → berehala.

Gizarte islamikoaren ezaugarriak:

- Etekinak zergekin lortzen dira. Feudalismoan, errentak produktuekin ordaintzen ziren. Kasu honetan, monetaren bidez egiten zen.
- Hiritarra da. Gobernadorea hirian dago, eta bertatik antolatzen da lurraldea. Bertan kokatzen dira jauregiak... Landan leinuak kokatzen dira. Hirian ere gotzaina dago.
- Pribatuaren nagusitasuna. Gure artean konpontzeko arazoak ez dugu estatura joko. Kristauen kasuan liskarretarako lege propioak ezartzen dira, baina islamaren kasuan ez du horrela funtzionatzen ez bada kanpoko pertsona batekin dagoela arazoa.
- Erlijioari dagokionez:
 - Erlijioaren axolagabetasuna. Ez du axola besteen erlijioa zein den.
 - Zerga: *yizya*. Musulmanak ez direnek komunitate islamikoari (Ummari) zerga bat ordaindu behar die. Legitimitatea ez daukatelako, izan ere, lurrak komunitate musulmanarenak dira.
 - Gotzaina musulmanen eta kristauen arteko bozeramailea.
 - Musulmanek kristauak baino eskubide gehiago dituzte, baina aukera daukate bertan bizitzeko.

AL-ANDALUSEN KONKISTA (711-5)

Dimma → komunitate islamikoak musulmanak ez direnei ematen dien babesak da eta babes hori jasotzen dutenak: *Dimmi*-ak.

IRUÑAKO KASUA

2003an, Gazteluko Plazan, parking bat egiten ari zirela hilerri musulman bat aurkitu zuten 180 hildakorekin. Genetika probak egin ondoren %60-a Ipar Afrikarrak zirela eta %40-a bertakoak zirela konprobatu zuten.

2005an nekropoli (hilerri) kristau bat aurkitu zuten, VIII. mendekoa (711). Gorpuen artean emakume kristau aberats bat aurkitu zuten hatzamar bakoitzean eraztun musulman batekin. Honekin, ondorioztatu dezakegu, eraztun hoiekin elitea imitatu nahi zuela. Kalifa eta emirren arteko desberdintasuna: Kalifa erlijiosoa da zentsu politiko batean, kalifa izango litzateke komunitate islamikoaren burua, kargo politikoa eta bere erantzukizuna estatu islamikoa mantentzea da. Emir, aldiz, "printzea" da, lurralde baten agindaria. Kalifak izendatzen du emirra eta berak ematen dio legitimitatea.

*Abd Al-Rahman

MUNDU ISLAMIKOA 750.AN

750ean dinastia aldatu zen, umaiarrak desagertu egiten dira eta dinastia berria abbastarra (arabiarrek) da.

KALIFERRI ABBASTARRA

- Sorrera: iraultza abbastarra.
- Islam klasikoa: SS.VIII-X
 - Garai honetan islamak lortzen du punturik gorena zentsu askotan.
 - Mugak sortzen dira.

- Hiriburuak. abbastarrek hiriburuak jarri zituzten modan, benetako hiriak sortu hutsetik. Kalifa guztiek nahi zuten beraien hiria eraiki. Aurikoak: nagusiaren alde.
 - Bagdad (lehenengo hiriburua).
 - Islamaren boterearen kontzeptua eraman zuten.
 - Hiri eredia zen: zirkularra. Hala ere, hau fisikoki ez da posiblea topografia dela eta.
 - Al-Mansur
 - Harun Al-Rasid (786-809) → Raqqa (786)
 - “D” itxurako hiria.
 - Al-Muʿtasim → Samarra (838)
 - Kalifak hiriaren erdian jartzen du bere jauregia eta horren inguruan administrazio guztia.
- Eskola juridikoak
- Historiografiaren sorrera → arazoak
- Beste kulturen hartzea:
 - Barnekoa → pertsiarra, greziarra
 - Kanpotarra → indiarra, txinatarra
- Hedapena: *Hayy* (pelegrinazioa) / batasuna.
 - Mundu islamikoa oso handia baina guztiak batu egiten dira Mekan, Medinan...
- Kaliferriaren zatiketa

ESKOLA JURIDIKOAK ETA HISTORIOGRAFIA

1. Gertaeren ahozko transmisioa: Ayyam Al-Arab
2. Transmisioa (Hadit eta Isnad): eta historiografia.
 - 2.a - Zuzenbide islamikoaren sorrera
 - Korana
 - Tradizioak (*Hadit*) → tradizioen bildumak dira.
 - Interpretazioa → mezkiten egitura
 - Eskolak: Malikiyak. 4 modu desberdin daude legeak interpretatzeko.
 - 2.b - Historiografiaren sorrera.

Muhammad-en biografiarekin hasten da musulmanen historia.

 - Kalendarioa.
 - Historiografia.

ERDI AROKO MUNDU ISLAMIKOA (KULTURA MATERIALA)

AINZINAROKO HIRIEN BILAKAERA

Orokorrean oso ohikoa zen etorbideetan zutabeak ipintzea. Mundu islamikoan aldaketak geratzen hasten dira. Alde batetik, etorbideetako tarreak aprobetxatzen dira nolabaiteko gelak egiteko. Gela hauek denda antzekoak izango ziren, azoka antzekoak. Oso ohikoak ziren merkatal gizarteak, eta merkatu hauek hirietan kokatzen ziren, horregatik ziren oso garrantzitsuak hiriak. Gainera, eraikinek errepresentatibitatea galdu zuten.

Ex novo → zerotik hiri bat eraikitzea.

Nekropoliak normalean kanpoan egoten dira. Hildako islamikoak albo batera jarrita lurperatzen dira, kristautasunean



ez bezala eta beti mekara begira. Haturik gabe lurperatzen dira, hau da, hiltzerakoan gorpuarekin sartzen diren objekturik gabe. Horren ondorioz, hilobi batek ematen digun informazioa eskasa da, hezurrek ematen duten informazioaz bakarrik baliatu gaitzke.

Kanpoan harresia dago, bertan kapitela bat badago, horrek esan nahi du berrerabilita dagoela. Harresietan oso garrantzitsuak dira ateak, monumentalitatea daukatelako.

Hiriaren espazioan sartzeko pasabideak dira, eta errepresentatibitate handia daukate.

Ate ezberdinak daude:

Zuzenak → defentsarako modu bat. Batez ere ekialdean, ateak gero eta sofistikuagoak dira.

Gotorlekua gobernadorea bizi den jauregia da. Hiri berrietan

beti kanpoan kokatzen da.

Hiritan beharrezkoa zen ura. Etxeek askotan putzuak zituzten,

baina normalean hiriak ibai baten ondoan egoten ziren, eta ura

ekarri ahal izateko, norriak erabiltzen ziren.

Mezkitek izugarritzko garrantzia daukate. Mezquita zentralak daude

(*Aljama*), bertan jendea batzen da. Mezquita handia edo nagusia

bada, barneko partea oso apainduta egongo da. Patioek plaza

itxura daukate, eta lurra beti dago oso garbi.

Azokak: zutabeak gorriak eta berdeak badira, esklabuak bertan saltzen ziren. Azoketatik gertu "Alhondiga" izeneko tokiak daude, merkantziak uzteko tokiak dira, baina baita saldu, erosi zein lo egiten zen bertan.

Etxe arabiar-musulmana. Zentroan patioa daukate, bertatik geletara joaten da baina baita beste etxebizitzetara. Ez daukate apenas lehiorik kanpora begira, eta dauzkatenak nahiko tapatuta egoten dira. Horrenbestez, lehio gehienak barrurantz egoten dira, bizitza pribatua bilatzen dutenaren seinale.

LEINUAK ETA KOKALEKUA

Nekazarien ezarmenduak oso garrantzitsuak ziren.

Leinuak errentak ez ditu ordaindu behar, beraz nekazariak bere buruarentzat produzitzen du, hau da, leinuak bere buruarentzat produzitzen du.

Zerga eta errentaren arteko desberdintasuna: Zerga → dirutan ordaindu, beraz nahi dudana produzitu dezaket. Errenta → ad: garitan ordaindu, beraz ez naiz libre produkzioan. Leinuak errentabilitatea lortzeko pentsatu behar du zenbat produzitu behar duen eta zenbat pertsonentzako.

Herrixketan leinuak bizi dira.

Defentsa eremuak, orokorrean gaztelu antzekoak dira, baina ez gaztelu klasikoak bezalakoak. Nekazarien gazteluak toki altuetan egoten dira eta hauen funtzioa ez da militarra, babesleku baizik. Herrixketako jendeak babesleku bezala erabiltzeko hain zuzen ere. Gaztelu klasikoetan ez bezala, hierarkizazioa ez da ikusten, ez baitago dorreerik. Lokatzez eginda egoten dira, harriak erabiltzea nahiko konplexua delako.



EL EMIRATO DE CÓRDOBA (754-929)

UMAYYARRAK: DAMASKOTIK KORDOBARA

ABD AL-RAHAM I

750ko estatu kolpe baten ondoren, pertsona bakarra bizirik irteten da: **Abd Al-Rahman I**. Bera 750ean Al-Andalusera heldu zen eta bertan bere emirerri propioa eraiki zuen. Bertako jende askok Walà erlazioa zeukaten umayarrekin.

Garai honetan, botere berri bat agertu zen toki ezberdin batean, pertsiarra. HISAM (788-796) ETA AL-HAKAM (796-824)

Muladi → konbertitu dena baina bertakoa dena. Konkistatuak dira, baina momentu horretatik aurrera haiek ere bihurtzen dira konkistatzaile. Momentu honetan, familia hauen izenak ateratzen hasten dira, eta botere bat bezala ezagutzen hasiko dira.

ABD AL-RAHAM II (824-854)

- Nazioarteko testuingurua
 - Abbastarrak → Harun Al-Rasid. Bera Bagdadeko (garai hartan Konstantinopla) Kalifa da. Aldaketa asko egin zituen Abbastarreko emirerrian.
 - Karlomagno. Al-Andaluseko kontra-boterea. Hiri berriak fundatuko ditu, eta horregatik inguruko espazioan aldaketa asko sortuko dira.
 - Tuter. Garai honetan Pirineoetatik gertuen dagoen hiria da. Aldi berean, Zaragozatik oso gertu dago, eta hau hiriburua zen garai hartan. Tuter beste sistema bat osatzeko fundatu zen, eta guztiz planteamendu ezberdin bat eduki zuen.
 - Tolmo de Minateda. Bertan basilika bisigodo bat aurkitu zen.
 - Murcia. Berrantolaketa bat egiteko, Murciara mugitu zuen hiria.
- Abd Al-Rahman II-ren garaia (824-854)
 - Eredu Abbastarra
 - Espazioaren berrantolaketa
 - Hiriak
 - Muga
 - Tuter, Zaragoza, Lleida...
 - Kontu erlijiosoa
 - Kokistatzaileen helburua ez da jendea konbertitzea, lege islamikoa indarrean egotea baizik. Hala ere, gero eta jende gehiago konbertitzen da nahiz eta kristauak gehiengoa izan.
 - Kultura
 - Mecara joatearen eraginaren ondorioz, Bagdad-en sortzen diren poemak Al-Andalusera ere iristen dira adibidez.

Fitna → Gerra Zibila. Gerra hau berezia da, ez baita estatu batean geratzen dena, baizik eta musulmanen arteko gerra bat.

Umar Ibn Hafsun → Matxinada bat egin zuen eta Bobastron kokatu zen, eta bertan bere gaztelua eraiki zuen.

AL-ANDALUS 912an

Garai honetan Al-Andalusen gainbehera.

924an Iruñaren aurkako kanpaina. Bertara joateko Abd Al-Rahman III.a ez da zuzenean joaten, matxinadetatik pasatu zen lehenago. Iruña guztia sutzitu zuen. **929**an barneko disidentzia kontrolatzea lortu zuen eta emirra izatetik Kalifa izatera pasatzen da.

KORDOBAKO KALIFERRI U MAYARRA (929-1034)

Abd Al-Rahmanek kaliferria aldarrikatzen duenean, bera ez da kalifa bakarra, Bagdaden beste bat dago.

Abd Al-Rahman III.ak administrazioa kontrolatzen zuen, hau egiteko, ejerzittoa erabiltzen zuen. Ejerzittoa militarra da, gerra prestatzen dute bakarrik.

ABD AL-RAHMAN III

- Matxinoen men egitea
- Kaliferriaren aldarrikapena

3.GAIA: GARAI KAROLINGIARRA

KAROLINGIAR INPERIOA ETA BERE ERAKUNDEAK

IV. mendean krisi (politiko, ekonomiko, sozial...) sakona. Krisia estrukturala zen, hau da, mugak arriskuan zeuden, batez ere germaniarrengaitik.

406an germaniarrak Rhin ibaia zeharkatu zuten, galian zehar hedatzeko. 407an erromatar legioek Britainia utzi zuten. 409-415. 418an Galian erresuma bat sortu zuten bisigodoek. 476an mendebaldeko erromatar inperioa desagertu egin zen.

1.EGOERA POLITIKOA VI. MENDEAREN HASIERAN

Klodoveok bisigodoak garaitu zituen 507an. Honek, merovingiar dinastia berria sendotu zuen.

• **Karolingiar dinastia:**

VI .mendean merovingiar krisia zegoen. Horrez gain, Frankoen erreinuetan zatituta zegoen. Karolingiarren dinastiak botere nagusia Austrasia, Neustria eta Borgonian zuten. Oinordetza semeen artean banatzen zen. Izan ere, Dagoberto I.a hil eta gero bere oinordetza aristokraten artean banatu zen (jauregiko maiordomoak).

• **Jauregiko maiordomoak:**

1. Herstalko Pipino (635-714) Austrasiatik hasi eta erresumaren batasuna lortu zuen. 687. Urtean Frisiako konkista eta ebangelizazioa burutu zuen.

2. Karlos Martel (686-741) Bere aitaren kargua hartu zuen. Prestigioa lortu zuen garaipen militar garrantzitsu batzuk lortu baitzituen. Esaterako, Watiarseko guduan musulmanak garaitu zituen. Horrez gain, Poitierseko gudak ere prestigio handia emango dio.

3. Pipino Laburra (741-768) Sendiaren dinastia nagusitu zuen. Azken errege merovingiarra tronutik bota zuen eta bere burua errege koronatu zioten 751ean. Berak izendatu zuen karolingiar dinastia berria. Oinordetzan bere bi semeei (Karloman eta Karlos) eman zien. Hain zuzen ere, Pipino laburra 768an hil zen. Hala ere, 771ean Karloman hil egin zen, Karlos frankoen errege bakarra bihurtuz.

2.FRONTEAK

HEGOEKIALDEKO FRONTE ITALIAR PENINTSULA

774.urtean Lonbardoan lurraldea konkistatu zuen. Beraz, Karlomagno bera koroatuko da Lonbardoan errege berria. Berak, Aita Santuarekin batasuna sendotu zuen eta bere boterea Italian lortuko du.

HEGOALDEMEDEBALDEKO FRONTEA

Horreagako porrota 778an Karlo Magnok estrategia militarra aldatu zuen. Musulmanen politikaz baliatuta, Ebroko bailaran frankoen armada bat sartu zuen. Estrategia honen helburua Zaragoza eta Bartzelonako gobernadore musulmanei laguntza eman zien, hauek Emirren kontra zeudelako. Zaragozara heldu bezain pronto, traizionatu egin zioten, beraz, 778an Karlo Magno Frantziara bueltatu zen. Horrez gain, Baskoiek armada frankoen porrota lortu zuten. Ondorioz, erazo militarrek baztertu zituen.

1. Hegomendebaldeko frontea: politika berria

Akitanian sendotu zen, erresuma bat sortuz. Akitaniako hegoaldean hispaniako marka (muga bat) inperioa hobeto defendatzeko. Mozanbiarrak hispaniarrak markara ekarri zituen, kolonizatzeko helburuarekin. Karlo Magnok hauei lurak eta babesak ematen zien. 795an Girona eta 801ean Bartzelona konkistatu zuen. Karlo Magnok kristautasuna hedatu zuen europan germaniarren kontra borrokatzeko. Bestalde, frankoen mugak handitu nahi zituen. Gainera, erromatarren inperioen lurraldeak berreskuratu nahi zituen, nahiz eta muga/lurralde txiki bat soilik okupatzea lortu zuten.

3. KAROLINGIAR LIDERGOAREN KONFIRMAZIOA: KARLO MAGNOREN KOROATZE INPERIALA: 800. Urtean eta bere inperioa

Alde batetik, kristaualdian lortutako boterea eta prestigioa konkistekin lortu zuen. Bestalde, Aitasantutzearen ahulezia eta prestigioaren falta zeukan. Gainera, bizantziako enperadoreen ahulezia eta prestigio falta zeukan.

Koroatze zeremonia Erroman 800.urtean, egu-berri egunean eman zen, Leon III Aita Santuak jarrita. Bizantziako koroatze errituala erabiliko da. Inperioaren oinarriak: antolaketa eta kudeaketa dira. Karlo Magno inperioaren hanibat arlotan oinarri sendo batzuk jartzen saiatuko da. Batetik, justizia arloan, tradizio juridiko ezberdinak onartuko dira: erromatarra eta germaniarra. Karlo Magnoren ardura nagusia justizia administrazioa bilakatuko da, bere ordezkariak gortean eta inperioan zehar. Scabinioren garrantzia. Eragin germaniarra izango dute epaiketarako ardaliak eta fuida (mendekua). Akusatuek burdin gorri biziari heldu behar zion, eskuak erretzen zituelarik. Mendekotasun edo erruduntasun deklarazioa zauriak sendatzen zituen denboraren arabera zen. Hitzartutako epea baino lehen sendatzen baziren, akusatua errugabe deklaratu zuten. Administrazioari dagokionez, Palatiuma (inperioko administrazioaren erakunde nagusia, Akisgran hiriburua), lurraldeetarako administrazioa (markak...) eta inperioko administrazioaren kontrola (missi dominicoren lana). Armadaren papera oso garrantzitsua zen, inperioaren sendotasuna mantentzeko. Karlo Magnoren ondoren, ahultzen joan zen. Zalduneria zen oso ohikoa. Karlo Magnoren helburu nagusia gerlarien fideltasuna lortzea zen, horretarako honek nekazariak lantzeko lurak ematen zizkien (beneficium, etekin ekonomikoa). Eragin germaniarra nabarmena izango da epaiketetan, batez ere epailearen frogaketetan. Izan ere, testigantzak eta zinak ez ezik, frankoen ohiturazko jainkoaren judizioak edo ordaliak ere zabaldu egingo dira

Inperioan. Burdin goriena eta ur irakinena izango dira ordalia arruntak. Hala eta guztiz ere, jainkoaren judizioak mugatuta zeuden epaiketetan, eta bakarrik zenbait kasutan erabiltzen ziren. Bereziki, beste aukerarik ez zegoenean delitu bat frogatzeko. Arazo hau nahiko larria zen, alde irainduta eskubidea zuelako mendeko bat (faida) hasteko akusatuaren sendiaren kontra. Kasu 5 gehienetan, faidak guda bat zekarren sendien artean, eta gudarekin egongaitzatsuna Inperioan. Nekazarien laneko etekinak (errenta desberdinak) gerlaria berak eta bere sendiak jasotzen zuten, eta etekin ekonomiko horren truke gerlariak (edo basailua) bi prestazio desberdin egin behar zizkion bere jaunari, hau da, enperadoreari. Alde batetik, eta, batez ere, zerbitzu militar bat enperadorearen armadan, bere hornikuntza militarrekin. Beste aldetik, aholkua ematea gai desberdinatan: justizia arloan, ezkontzako politikan, eta abar. Ekonomia eta finantza arloan, Karlomagnoen hiru ahalegin nagusiak: Inperioko feriak eta merkatuak kontrolpean edukitzea, monetaren antolaketa berri bat zilarrezko monometalismoan oinarrituta (Erreferentziako moneta denarioa izango da) eta inperioren urteroko sarrera fiskalak finkatzea eta balioztatzea. Horretarako, ahaleginak egingo dira inperioko baliabideen inbentarioak egiteko. Helburua, Inperioaren aberastasunaren balioespena izango da.

Erlijio arloan, Karlomagnok bere gain hartuko ditu apaizeriaren babesak eta baita apaizeriaren kontrola ere. Hori zela eta, Karlomagnok parte hartuko ditu gotzainen eta monasterioetako abadeen izendapenekin, kontzilioetako burua izango da, eta parte ere hartuko du zenbait eztabaida erlijiozkotan. Kultura arloan: Karlomagnok interesa zuen kulturaren eta hezkuntzan, eta saiatuko da hezkuntza zabaltzen eta garatzen Inperioan. Gainera, saiatuko da sustatzen kulturazko politika bat Inperioan, Yorken Alkuinoaren laguntzarekin. Esan daiteke, kulturazko politika honen sustatzeko ahalegina izan zela Karlomagnoen lorpen handienetarikoa bat.

4. INPERIOAREN KRISIALDIA

Karlomagno 814. urtean hilko da, eta bere heriotzarekin laster hasiko da Inperioaren ahultasuna. Bere oinordekoa, bizirik zegoen bere seme bakarra, Luis Elizkoia, gobernatuko du Inperioa 814. urtetik 840. urtera. Luisen izaera bere aitarena baino guztiz kontrakoa zen. Gizon ahula eta eraginerraz zen, eta Elizaren hierarkiaren mendean jarriko du Inperioaren etorkizuna. Luisen ustez bakarrik Elizak zuen gaikuntza Inperioaren batasuna eusteko, batasuna hori bakarrik erlijioaren eta kulturaren bidez lor litekeelako. Hori zela eta, Luisek sendotu egingo du frankoen Eliza eta horren ondorioz Elizaren eragina handitu egingo da mendebaldeko Europan. Hala eta guztiz ere, laster hasi ziren Inperioan gatazka politikoak, batez ere, Luis Elizkoiaaren semeen artean. Bai Lotariok, bai Luis Germaniarrak, bai Karlos Burusoilak, Inperioa nahi zuten, eta haien arteko guda larritu egingo da Luis Elizkoiaaren heriotza gertatu ondoren (840). Inork ez zuen lortzen behin-betiko garaipena gudan, eta azkenik hiru semeek Itun bat sinatuko dute, Verdunen 842. urtean, Inperioa banatzeko hiru zatitan: Mendebaldeko aldea (Frantziako eta Hispaniako lurraldeak) Karlos Burusoilarentzat, Erdiko aldea eta Italiako lurraldeak Lotarioarentzat (Honek Enperadorearen maila ere jasoko du) eta Ekialdeko lurraldea (gero izango den Alemania) Luis Germaniarrarentzat izango da. Hortik aurrera Inperioaren banaketa lastertu egingo da. Hori zela eta, 875. eta 888. urteetan, Inperioren banaketa nabarmena zen, 843. urtean sortutako hiru lurraldeei, gehitu egin zirelako beste erreinu eta printzerri desberdin batzuk. Aldi berean, Karolingiar Enperadore eta erregeen boterea gutxitu egingo da aristokraziaren mesedetan. 877. urtean (Quierzy kapitularren bidez) aristokraziaren beneficiumak oinordetzakoak bihurtuko dira. Hori zela eta, aristokraziaren mendeko lurraldeak (konderriak eta printzerriak, bereziki), ugaritu egingo dira. Aristokraziaren botere politikoa ere handitu egingo da, eta 888. urtean aristokraziak berak hautatu egingo ditu errege frankoak. Azkenik, 924. urtean desagertu egingo da karolingiarren erakunde inperiala. Azken errege karolingiarra (Luis V.) hil ondoren, aristokraziaren kide batek, Hugo Kapeto, Frantziako tronua lortuko du 987. urtean. Kapetoen dinastiaren hasiera izango da

ELIZA ETA KULTURA: boterea, kristautzea, monakotza eta berpizkunde karolingiarra.

1.Sarrera

Eliza kristauaren lehen mendeak Erromatar Behe Inperioan: 313. Milango ediktua: Konstantino enperadoreak Erromatar Inperioaren erlijio kultu askatasuna dekretatzen du, 380. Tesalonikako ediktua: Teodosio enperadoreak kristautasuna Inperioaren erlijio ofiziala dela esaten du, Germaniar erreinuak: Eliza kristaua bi ardatzen bidez garatuko da: instituzionala eta espirituala, Instituzionala: gotzainen lanaren eta Erromako gotzainaren sendotzearen bidez, Espirituala: paganoen ebanjelizazioaren bidez eta heterodoxiei (heretikoei) aurre egiten. Ardatz instituzionalean gotzainen zeregina funtsezkoa izango da. Gotzainen autoritatea kontzilioetan adierazten zen. Gotzainak (aberatsak, aristokraziako familiakoak eta errege gortean karguak). Kulturarako sarbidea monopolizatzen zuten eta pentsamendu politikoa lantzen zuten. Gotzainen artean Erromako gotzainak lortuko du kristautasunaren lidergoa.

Ez zen lan erraza izan Aita Santuarentzat, batez ere Konstantinploaren ekialdeko egoitzaren lehiagatik. Ebanjelizatze lana ez zen erraza izan V. mendetik VII. mendera. Beste arrazoi batzuen artean, errege germaniarrek korrante kristau heterodoxoak besarkatu zituztelako. Arrianismoa, adibidez. Kristau sinesmen honek, Jesukristoren izaera, gizakia baino ez zela uste zuen, eta ez jainkozkoa. Ebanjelizatzearen eginkizunik garrantzitsuena elizgizonik apalena eta fededunengandik hurbilena izango da. Alde batetik, parrokia-elizetako apaizetan. Beste alde batetik, monjeetan, kristautasunaren mugak zeharkatuko dituztenak erlijio kristaua irakatsiz

2.Eliza eta boterea: Aitasantutzaren egoera

Hiru garai bereiz ditzakegu

- Lehenengo garaia: VIII. mendearen bigarren erdialdean Mendebaldeko Eliza Katolikoaren aliatu nagusia frankoen erreinua eta haren Karolingiar dinastia izango da. Aliantza hau 751. urtean estutu egin zen. Urte horretan frankoen aristokrata boteretsuenak eta elizako buruzagiak bilduko dira Soissonen errege berria (Pipino Laburra) izendatzeko. Han, eta gantzuaren bidez, Aita Santuak berak (legatuaren bidez) berretsi egingo du Pipino errege berriaren legimitatea. Elkartasun hau sendotu egingo da Karlomagnoen erreinaldian: Lehenik, lonbardoen erregeak, Desiderio, Aita Santuaren lurraldeak mehatxatuko dituenean. Karlomagnok armada bidaliko du lonbardoen kontra; lonbardoen hiriburura, Pavia, hain zuzen ere. 774. urtean frankoen armada Pavian sartuko da, eta konkistatu egingo du lonbardoen erreinu osoa. Karlomagno bera koroatu egingo da lonbardoen errege berria. Beraz, lonbardoen lurraldea integratu egingo da Inperioan, eta gainera frankoen eta Aita Santuaren batasuna sendotu egingo da. Izan ere, Aita Santuak erromatarren patrizio titulua emango dio Karlomagnori. Bigarrenik, Leon III.ak Karlomagno koroatu egin zuenean 800. urtean. Enperadoreak bere gain hartuko du Elizaren babesa, baina baita apaizeriaren kontrola ere. Hori zela eta, Karlomagnok parte hartuko ditu gotzainen eta monasterioetako abadeen izendapenekin, kontzilioetako burua izango da, eta parte ere hartuko du zenbait eztabaida erlijiozkotan.
- Bigarren garaia: Karlomagnoen heriotzarekin, egoera guztiz aldatuko da Aitasantutzarentzat eta Elizarentzat. Karlomagnoen oinordekoa, bizirik zegoen bere seme bakarra, Luis Elizkoia, gobernatu egingo du Inperioa 814. urtetik 840. urtera. Luisen izaera bere aitarena baino guztiz kontrakoa zen. Gizon ahula eta eraginerraz zen, eta Elizaren hierarkiaren mendean jarriko du Inperioaren etorkizuna. Luisen ustez bakarrik Elizak zuen gaikuntza Inperioaren batasuna

eusteko, batasuna hori bakarrik erlijioaren eta kulturaren bidez lor litekeelako. Hori zela eta, Luisek sendotu egingo du frankoen Eliza eta horren ondorioz Elizaren eragina handitu egingo da mendebaldeko Europan. Elizaren eragina areagotuko da IX. mendearen azken erdialdean, karolingiarren dinastiak beheraldia izan zuenean. Nikolas I.ak (858tik867ra) Aita Santuaren aginpidea zabaldu zuen, eta administrazioaren erreforma hasi zen. Horretarako, Elizaren gobernu baliabide eta erakunde guztiak

Erroman zentralizatu zituen. Hala eta guztiz ere, berarena izan zen garai honetako Aita Santu batek egin zuen azken erreazio indartsu bakarra Elizaren lidergoa aldarrikatzeko. Hirugarren garaia edo burdinazko garaia : Nikolas I. hil ondoren Elizaren lidergoa krisialdi gogor batean sartuko da X. mende osoan. Bi izango dira zergati nagusiak. - Alde batetik, Aita Santuek baztertu egingo dute Aitasantutzaren lan espiritualak politikaren mesedetan. Inperioaren babesa galduta, X. mendeko Aita Santuak Italiako hainbat gatazka politikotan egongo dira sartuta. - Beste aldetik, kontuan hartu behar da X. mendeko Aitasantutzak parte hartu zuela ustelkeriaren hainbat kasutan

3.Kristautzea eta monakotzaren hedapena

V. mendean Eliza katolikoak hasita zuen Europako ebanjelizazioa. Lan zaila zen, dudarik gabe, eta Elizaren buruzagiak apaizaren eta monjeen esku utzi zituen ardura, bereziki. Lan nekea eta luzea izango da germaniarren eta paganoen artean, kristau mezuaren moldaketa zaila zelako erlijio berria onartzeko. Hori zela eta, errege germaniarren laguntza ezinbestekoa izango da benetako arrakastak lortzeko. Horrela gertatuko da ere Karolingiarren garaian, badakigulako errege karolingiarrek, bereziki Karlomagno eta Luis Elizkoia, lagundu egingo diote Elizari kristautzearen lanean (armadaren atzetik, misiolariak joango dira ebanjelizatzen). Lana, alde batetik, apaizek haien parroketan egingo dute, eta beste aldetik, monjeen lana ere, ezinbestekoa izango da garai horretan. Misiolarien mezuak ulertzeko erraza izan behar zuen, eta helburua lortzeko apaizek eta monjeek baliabide batzuk erabiliko dituzte.

- Liturgiarako sinbolismoa erabiliko da, latinaren ezagutzagabetasuna saihesteko. Fededunek ez zituzten ulertzen (latina) liturgiaren testuak, eta elizgizonak saiatuko dira azalpen sinboliko bat ematen liturgiarako erabiltzen ziren osagai guztiei.
- Sinesmen eta debozio pertsonalak bultzatuko dira. Alde batetik, herriko debozioak bultzatzeko erlijio berria animismo pagano zaharrarengana hurbilduko da. Horrela sortuko da aingeruen kultua, defuntuen kultua, eta, bereziki, santuen kultua. Hauek, botere magikoak eta mirarizkoak zituztela uste zen (gaixotasunak sendatzeko, besteak beste), eta bitartekoen lana egiten zuten Jainkoarekin. Beste aldetik, dualismo sendo bat erabiliko da. Azalduko da munduan ongia eta gaitza borrokatzen ari zirela etengabe, eta batzuetan gaitzak edo deabruak garaipenak lortzen zituzten. Hori zela eta, izurriak, gaixotasunak, goseteak edo uholdeak pekatuaren ondorioak edo deabruen ekintzak ziren. Horregatik, zorigaitzak eragozteko (eta ongia irabazteko), ezinbestekoa zen gizartearentzat bekatuei uko egitea.
- Sakramentuak bultzatuko dira, bataioa, penitentzia eta eukaristia hain zuzen ere. Hirurok ezinbestekoak ziren betiko salbamenarentzat, eta erritoz beteko dira. Emaizak nabarmenak izango dira. Kristautasunak eta Elizak berak pauso handi bat eman zuten sendotzearen bidean. Adituen ustetan, Karolingiarren garaian kristautasunaren mota baten oinarriak jarri ziren, eta kristautasun honek etorkizun oparoa izango du Historian. Izan ere, XI. mendeko Gregoriar erreformatzaileek onartu eta berriro egingo dute erlijio bide hau, bere arrakasta ziurtatzeko asmoarekin. Monjeak eta monasterioak Monakotza III. eta IV. mendeetan sortu zen.

Afrikako

iparraldean, batez ere Egipton. Bi modalitate: Eremitismoa (banakako monakotza) Leku urrunetan bilatzen da bizitza espirituala eta zenobitismoa (bizitza espirituala monjeen komunitate batean). Bi monakotza motak Europan zabalduko dira IV-VII. mendeetan. Kristautzearen lan honetan (zenobitismoa) monjeek protagonismo handia izango dute. Karlomagno berak bultzatu egingo du protagonismo hori. Izan ere, karolingiarrek, batez ere Karlomagno eta bere ondorengoek monakotzaren batasuna lortuko dute. Hau da, Karolingiarren garaian "Regula Benedicti" edo San Benito Nursiakoaren erregelak (Monte Casinon, VI. mende hasieran) hedatu egingo da Mendebaldeko Europan, eta gero eta sorturiko monasterio gehiagok erregelak hau onartuko dute. Erregelak monasterioetako komunitatearen bizitza arautu egingo du. Hau da: Monasterioetako kideek monasterioan bertan bizi behar zuten, pobretasun eta kastitate botoak egin behar zituzten, abade baten agintea eta zuzendaritza onartu behar zuten, monjeek eskulanak egiten eta otoitzean, helburu nagusia jende pobrea hartzea, gaixoak zaintzea eta irakaskuntza aritzea zuen helburua. Monjeen jardura beharrezko nagusiak nekazaritza eta abeltzaintza ziren. Horiei esker beren kabuz ateratzen zuten bizitzeko behar zutena, eta otoitzean eta irakaskuntza ematen zuten eguna. Done Benitoren erregelaren monasterioak Europa guztira hedatu ziren beste helburu bat lortzeko asmoarekin: erlijio paganoa zuten Europako herriak kristau fedea bihurtzea. Hala eta guztiz ere, erregelaren izaera (izpiritua) aldatzen joango da denborarekin, eta hau nabarmena izango da IX. mendean. Izan ere, monasterioek ongizate materiala lortu zuten, eta horrek ohiturak lasaitzea eta molde izpiritualetan utzikeria ekarri zuen. Aldi berean, abade asko garrantzi handiko pertsonaia izatera iritsi ziren eta eragin handia izan zuten Erdi Aroko Europako agintean. Monasterioek bilduriko aberastasun eta ondasunek (dohaintzei esker lortutakoak bereziki) ematen zien ospea abadeei. Lurren jabetzak eta beren jabegoak ustiatzetik lortzen zituzten irabaziak, batez ere. Horrela, apurkaapurka, monasterioen jopu edo kolono ziren nekazarien esku utzi zituzten lan hura. Kontuan hartu behar da, 6 alde batetik, nekazari asko abadeen eta monasterioen mende geratuko dira haien babes materiala lortzeagatik. Eta, beste aldetik, talde aristokratikoek ere, babes espiritualak bilatuko dira monasterioetan, eta horren truke, ondasunak emango dizkiete abadeei. Hori zela eta, IX. mendean, beste Benito bat, Anianokoak, erregela eraberritu egingo du Monte Casinon monasterioan. Helburua monasterioetako bizitza lehengoratzea zen. Hala ere, ahaleginak egin zituzten arren, monasterioak eskuratutako pribilegio, mesede, salbuespen eta jurisdikzioen jabe bihurtu ziren, eta jaurerri gisa antolatuta ziren. 1000. urte inguruan gotzainen mailako garrantzia zuten abade askok

4. Karolingiar berpizkunde kulturala.

Jacques Le Goffen ustetan, Inperioaren oinordetza kulturala izan zen emaitza garrantzitsua. Karlomagnoaren kultur maila nahiko urria zen. Latinaren ezagutza eskasa zuen eta ez zekien kasik idazten. Karlomagnoentzat kultura inperioaren zutabe sendoa zen. Hori zela eta, erregeak jakinduria babestu eta garatu egin behar zituen. Jarrera honek Karolingiar berpizkunde kulturala ekarri zuen. Hori bai, latindar oinordetza izango da, hizkuntza grekoa galdu zelako Karolingiar Inperioan. Obra garrantzitsuenak Boecio, Casiodoro, Sevillako Isidoro, Gregorio Handia eta Beda Agurgarriarenak izango dira. Obra hauek monasterioetako eta katedraletako eskolen scriptoriumetan gordeko dira.

Monasterioen artean, besteak beste, Jarrowen eta Yorken (Ingalaterran), Luxeuilen eta San Dennisen (Frantzia), eta Monte Cassinon eta Bobbio (Italia). Karlomagno boterera ailegatu baino lehen, kultura jakitun hau bakarrik aristokrazien talde batzuen artean irakasten zen, baina VIII. mendearen bukaeratik aurrera Frankoen erregea saiaturiko da kultura zabaltzen; lehenengo, erreinuan, eta, geroago, inperio osoan. Horretarako,

Karlomagnok pertsona baten laguntza izango du: Alkuino (739. urtetik-804. urtera) hain zuzen ere. Monje Anglosaxoi honek, York monasterioan ikasi zuen, Egberto maisuarekin, eta Karlomagnoaren politika kulturalaren zuzendaria eta antolatzailea izango da 783. urtetik aurrera; baina, batez ere, 793. urtetik aurrera. Antolatutako politika kulturalan berriak diren bi neurri aipa ditzakegu. Alde batetik, 789. urtean Karlomagnok lege bat sortu egingo du, "admonitio generalis". Helburua, katedraletan eskolak irekitzea zen, gaztek ikasteko. Irakasleak elizgizonak izango dira. Beste aldetik, irakaskuntzak helburu praktikoa ere izango du; hau da, Inperioaren administrazioako funtzionarioei prestakuntza hobea ematea, Inperioaren funtzionamendua hobetzeko. Irakaskuntzaren ezaugarriak:

- Irakaskuntzaren lehen baliabidea latina izango da, bai ahozkoa bai idatzia. Latin idatzian idazkera berri bat sortuko da; idazkera karolina hain zuzen ere. Idazkera minuskula eta borobila izango da, askoz ulerkorragoa. Idazkeraren garbitasunaren eta puntuazioaren interesa nabarmena zen. Bestalde, testuen beste ezaugarri bat irudien aberastasuna eta edertasuna izango da. Monasterioetako monjeek lan izugarri handia egingo dute Antzin Aroaren idazlanak kopiatzen.
- Ikasketen egitasmoak bi maila izango ditu. Eredua jauregiko eskola izango da. Lehenengo mailan edo oinarrizkoan bai latinen irakurketa eta idazmena, bai kantua irakasten zen. Bigarren mailan edo goimailakoan zapi arte liberalak irakasten ziren; hau da, Triviumen hiru arteak –gramatika, erretorika eta dialektika- eta Quadriviumen lau arteak –aritmetika, geometria, musika eta astronomia-. Hala eta guztiz ere, kulturaren eta irakaskuntzaren hedapena nahiko mugatua geratuko da Inperioan eta Inperioko gizartean

3.1.POSTKAROLINOAK

Ingalaterrako anglosaxoien erreinuak

1.Sarrera

Beda Agurgarriaren arabera (672. urtetik –735. urtera) Erromatar inperioaren porrotarekin 407an anglo eta saxoien talde batzuk ailegatu ziren kontinentetik Ingalaterrara. Hauek, baztertu egin zituzten irlako biztanleak, bretoiak hain zuzen ere, iparraldean eta mendebaldean. VI. eta VII. mendeetan anglosaxoien klanak sendotu egin zuten boterea irlan, eta haien buruzagiek Ingalaterrako lehenengo erreinuak sortuko dituzte. Gainera, VII. mendean, anglosaxoiak kristautu egingo dira, eta horrek ere mesede egingo dio erreinuen sendotasunari. Aldi berean, erreinuaren buruzagiak saiaturiko dira irla osoaren nagusitasuna lortzen. Egoera gatazkatsua izango da.

2. VIII. mendea: Mertziazen nagusitasuna

VII. mendean Northumbriako erreinuak zuen nagusitasuna, baina VIII. mendean Northumbriako erregeek galdu egin zituzten Ingalaterrako lidergoa, Mertziazen erreinuaren mesedetan. Hau nabarmena izango da Etelbaldo erregearekin; baina, bereziki, Offa erregearekin (757.etik-796.era). Offa erregearen politikak bi helburu izango ditu. Lehenik, Mertziazen erreinuaren nagusitasuna sendotzea irlan eta, bigarrenik, Ingalaterrako hegoaldearen batasuna lortzea. Horretarako, neurri batzuk jarriko dira martxan.

- Lehenik, erreinuaren lurraldeetako antolamendu berria sortuko da. Horretarako, erreinua banandu egingo da konderrietan (shiretan), eta konderri bakoitzean

goimailako erregearen ofizial bat jarriko da, bereziki, armada antolatzeko. Bere izena, earldormen izango da.

- Bigarrenik, moneta irarri egingo da, ekonomia eta, bereziki, merkataritza bultzatzeko (penny). - Hirugarrenik, lege idatziak sortuko dira. - Laugarrenik, harresi luze bat adobez (buztin, hondar eta lastorekin egindakoa) eraikiko da erreinuaren mendebaldeko 2 mugan, Galeseko armadaren mehatxuak eragozteko. 240. Km.kua. Hala eta guztiz ere, Offaren helburua; hau da, Ingalaterrako hegoaldearen batasuna lortzea, porrot egingo da. Hauek izango dira arrazoi nagusienak: bi egitura arazo (gizartearen eragin tribal handia eta klanen botere garrantzia) eta gizartearen oinarri ekonomikoak berak.

Offak merkataritza saiatuko da indartzen. Horretarako wikak edo portusak bultzatu egingo ditu. Wikak Leku babestuak ziren, badietan edo kostaldetik gertu kokatuak, eta merkatariaik hara iristen ziren negozioak egitera. Erregeek babes armatua ematen zieten leku horiei. - Beste aldetik, bikingoen agerpena iparraldean, Offaren heriotza gertatu baino hiru urte lehenago (793. urtean).

3. Wessexen nagusitasuna IX. mendean.

Offa hil ondoren, Ingalaterrako erregeen nagusitasuna hegoalderantz lekualdatuko da, Wessexen, bi erreinaldi izango dira garrantzitsuenak IX. mendean: Egbertorena, eta, batez ere, Alfredo Handiarena.

- Egberto (802. etik-839.era). Garaipen militar ugari lortuko ditu, bai Northumbrian, bai Mertzian, eta 825. urtean Kornualles konkistatu zuen. Urte horretan Mertiaren erresuma menderatu zuen, eta 829an baita Northumbriaren erresuma ere. Hori zela eta, Bretwaldaren titulua hartu zuen. Ingalaterra osoaren batasuna lortzea izango da bere helburua, baina bikingoen erasoek eten egingo dute bere asmoa. Izan ere, bere erreinaldian bikingoek konkistatu egingo dituzte Northumbria, East Anglia eta Mertzia. Hori zela eta, Egberto hil baino lehen, bakarrik Wessexko hegoaldeak gordetzen zuen erreinuaren independentzia.
- Alfredo Handia (871.etik-900.era). Lehenengo aldiari Alfredo erregeak Bikingoen aurka galdutako lurraldeak berreskuratu egingo ditu, eta horren ondorioz mugapen bat jarriko du bikingoek menderatzen duten lurraldea eta anglosaxoiek menderatzen dutenaren artean. Mugapen hau Chestertik Tamesis ibaiaren ahorraino luzatzen zen. Hortik iparralderantz bikingoek menderatutako lurraldea hedatzen zen; hau da, Danelaga, edo danimarkarrek menderatzen zuten lurraldea. York izango da bere hiriburua. Berriz, mugapenetik hegoalderantz Alfredo erregeak menderatzen zuen lurralde anglosaxoia zabaltzen zen. Bigarren aldiari, Alfredo Handiak neurri batzuk jarriko ditu martxan bere lurraldean, erreinuaren oinarriak garatzeko eta bizkortzeko. Neurri garrantzitsuenak erreinuaren ekonomia sustatzeko helburuarekin jarriko dira. Bi neurri aipa ditzakegu: 1- Erregearen finantzak sendotu egingo ditu, baliabide ekonomiko gehiago bideratzeko. 2- Merkatu ekonomiaren garapena bultzatu egingo du. Horretarako, azokak egiteko leku batzuk sustatu egingo ditu. Hiri eta herri hauek (dokumentuetako wikak, boroughsak edo portusak) kostaldeko badietan, bereziki, egongo dira kokatuta, eta haien merkatuetan moneta erabiltzen zen salerosketan. Horrela, eta poliki-poliki, merkatu ekonomia trukean oinarritutako ohiko ekonomiari baztertuz hasiko zaio.

4. Anglosaxoien garaipena bikingoen aurka: batasunaren lorpena.

Alfredo Handiaren neurriek oso eragin ona izango dute Wessexko erreinuan. Erreinuaren oinarriak – bai finantza aldetik, bai ekonomia aldetik, bai administrazio aldetik, bai armada aldetiksendotu egingo dira, eta horrek ahalbidetuko die Alfredoren ondorengo erregei galdutako lurraldeen konkista hastea. 4 Hala eta guztiz ere, Wessexko erregeek bakarrik X. mendearen erdialdean lortuko dute behin-betiko garaipena bikingoen kontra. Eadreden erreinaldian gertatuko da (946.etik- 955.era). Horretarako, anglosaxoiak Danimarkarren hedapenerako ahalmenaren gutxitzeaz baliatuko dira. Bikingoak irabazita, Eadredekin lortuko du berriro irlaren batasuna, eta hasiko da eraikitzen erreinuaren antolaketa. Erreinuaren antolaketaren lana Eadreden ondorengo erregeek bukatuko dute X. mendearen bigarren zatian. Offa erregearen garaian gertatu zen bezala, erreinua konderrietan edo shiresetan antolatuko da. Eta konderrietan, erregeak hiru autoritate desberdin jarriko ditu: militarra, “earldormena” izango da; erlijiozkoa, gotzaina izango da; eta fiskala eta judiziala, “sheriffa” izango da. Gizartea eta ekonomia X. mendean Demografiaren eta ekonomiaren aldaketak. Demografiaren aldetik Europaren biztanleria handitu egingo da, batez ere, IX. eta X. mendeetan. Datu kualitatibo batzuk nahiko adierazgarriak dira: - Izurriak eta goseteak gutxitu egingo dira. - Dentsitate demografikoa handitu egingo da hainbat lurraldetan. - Pixkanaka-Pixkanaka biztanleriak utzi egingo du erabiltzen mendiko lekuak bizitzeko haranen mesedetan. Horrek handitu egingo ditu ekoizpenaren etekinak, eta horren ondorioz gosetearen arriskua ere gutxitu egingo da. - Hainbat lurraldetan hasiko dira lehenbiziko luberritze lanak, bai basoetan bai paduretan. Ekonomiaren aldetik susperraldiaren garaia izango da, IX. eta X. mendeak bereziki. 5 - Nekazaritzan, ekoizpena handitu egingo da. Bi izango dira arrazoi nagusiak. Garrantzitsuena, luberrien hedapena. Bigarren arrazoa, hobekuntza teknikoak izango dira, nahiz eta hauek nahiko mugatuak izan. Besteak beste, burdinazko edo belarriaren goldea, lepoko zurruna edo ferra aipa ditzakegu. - Merkataritzan ere susperraldia nabaritu da. Hauek izango dira susperraldiaren arrazoi batzuk. 1- Nekazaritza ekoizpenaren gehikuntzak soberakinen lorpena ahalbidetuko du herrixketako merkatuetan saltzeko. 2- Bai erregeek, bai aristokrazia laikoak (kondeak) eta elizakoak (gotzainak) moneta irarri egingo dute. Horrek salgaien salerosketak erraztu egingo ditu. 3- Bai erregeek, bai aristokraziak astean behingo merkatuak eta urtean behingo feriak sortuko dituzte hainbat lurraldetan. Ingalaterrako hainbat herrixkatan edo hainbat ibaien ahoan (hau da wicketan edo portusetan). 4- Aurreko ataletan aipatu genuen bezala, bikingoen lana ere garrantzitsua izango da Europako merkataritza bultzatzeko. Izan ere, bikingoek bideratu egingo dituzte haien arpilatzeen salgaiak Europako hainbat merkatutara. Azkenik, hiriak ere suspertu egingo dira, batez ere, IX. mendetik aurrera. - Alde batetik, erromatar garaiko hiriak elizbarrutiaren buruak bihurtu ziren. Kasu askotan, haien erromatar harresiak bota egingo dira eraikuntza berriak egiteko. Eliza ugari berri egingo dira, eta beste berri batzuk (haien artean katedralak ere) eraikiko dira zenbait hiritan – Londresen, Yorken, Kanterburyn-. - Beste aldetik, hiri berriak joango dira sortzen IX. eta X. mendeetan. Hiri hauen abiapuntua wikkak edo portusak ziren. Leku harresituak ziren, beren biztanleak (merkataria eta artisauak, bereziki) babesteko. Horrela sortu ziren Brujas edo Gante hiriak, hain zuzen ere. Gizarte mailak. Gizartea bi talde nagusitan zegoen zatituta. Alde batean, boteretsuak zeuden; hau da, aristokraziak (bai laikoak, bai elizakoak). Gutxiak ziren, oso aberatsak, pribilegioak zituzten, eta Inperioko eta erreinuetako goi mailako karguak izaten zituzten. 6 Beste aldean, boteretik baztertuta zeuden biztanleak zeuden. Gizartearen gehienak ziren, lan egiten zuten, zerga gehienak ordaintzen zituzten, eta ez zuten pribilegiarik. Hala eta guztiz ere, bigarren talde hau oso

heterogeneoa zen, bai ekonomiaren aldetik, bai askatasunaren aldetik. 1- Nekazarien (nekazariak eta abeltzainak) gizartea zen. Goiz Erdi Aroa nekazarien mundu bat zen. Mundu horretan nekazarien ustiapen txikiek (bai askeak, bai mendekoak) gero eta garrantzi handiagoa izango dute. 3- Gizartearen tarteko taldeek eta hirietako biztanleriak (artisauak eta merkatariak) oso pisu gutxi zuten garaiko gizartean eta ekonomian. Boteretsuak: aristokraziaren ezaugarriak. 1- Aberastasuna. Ondare aberats ugariaren jabeak ziren. Ondare horietan lurrek zuten, bereziki, garrantzi handiena. Izan ere, aristokraziaren kideek, bai laikoek, bai elizgizonek (gotzainak edo monasterioetako abadeak) latifundioen jabeak ziren. 2- Armen jardutea. Aristokraziaren ohiko funtzioa zen, eta garai honetan suspertu egingo da nabarmenki. Izan ere, indar militarra zen erresumen zutabe garrantzitsuenetariko bat. Gainera, gerra gero eta onuragarriagoa bihurtuko da aristokrazia gerlariarentzat: - Ekonomia aldetik, gerlariak harrapakinak lortuko dituzte. - Gizarte aldetik, garaipen militarrek gero eta prestigio handiagoa emango diote taldeari. Hori zela eta, aristokrazia gero eta gehiago espezializatuko da gerraren lanbidean, eta bereziki zalditerian. Horretarako, gerrarako zaldi bat eta bere hornidura militarra ezinbestekoa zen. Oso garestia zen, eta poliki-poliki zaldi gainean gudua aristokraziaren esku geratuko da. Honek ere prestigio gehiago emango dio aristokraziaren taldeari. 3- Goi mailako karguetan parte hartzea; bai Inperioko administrazioan, bai Elizan. Erresumen administrazioa handitu egin zen, eta horrek aukera eman dio aristokraziari goi mailako karguetan parte hartzeko. Bi motatako karguak izango dira: - Jauregiaren gobernuko karguak. - Lurraldeetako administrazioaren karguak; bai shireetan (earldormena, sheriffa), bai dukerrian (dux edo dukea), bai konderrian (comes edo kondea), bai mugetako marketan (marchio edo markako gobernatzailea). 7 Goi mailako kargu hauek oso onuragarriak izango dira aristokraziarentzat; bai ekonomia aldetik (soldata oparoak lortuko dituzte), bai botere aldetik (erresumetako politikan eragin gehiago lortuko dute), bai gizarte aldetik (prestigio gehiago lortuko dute). Gainera, aristokraziako kide batzuek ere Elizako goi mailako karguetan parte hartuko dute. Gotzainak eta monasterioetako abadeak izango dira, eta horrek aberastasuna ez ezik, botera eta eragina ere emango dizkie Inperioan. 4- "Basailutzaren" lotura sendoak taldearen partaideen artean, enperadorea eta erregea barne. Basailutzaren loturak oso lotura hierarkizatzaileak ziren helburu bat lortzeko; hau da, gizartean aristokraziaren taldea hobeto antolatzea goitik behera. Lehenengo, erregeak, eta gero erregearen basailuak; hau da, gortearen aristokrazia, lurraldearen aristokrazia, eta baita Elizako aristokrazia (gotzainak eta monasterioetako abadeak) ere. Hierarkia hau bermatzeko basailutzak bien arteko ordanaren (kontraprestazioaren) konpromiso bat eskatzen zuen. Hau da, basailu baten eta jaun baten arteko konpromiso bat. Alde batetik, basailuak laguntza militarren zin bat eskaintzen zion jaunari. Eta, beste aldetik, eta horren truke, jaunak bere babes eta ordainketa ekonomiko bat (beneficium) ere ematen zizkion basailuari. Nekazarien mundua: jabe askeak, jopuak eta esklaboak. Goiz Erdi Aroa nekazarien mundu bat izan zen. Biztanlearen kopuru gehiena nekazariak ziren. Boteretik baztertuta eta pribilegiorik gabe, nekazariak ez ziren, hala ere, talde homogeneo bat. Aitzitik, talde hau oso heterogeneoa zen, bai ekonomiaren aldetik, bai askatasunaren aldetik. Hiru egoera bereiz ditzakegu: jabe askeak, mendekotasunean zeuden nekazariak eta esklaboak. 1- Jabe askeak. Bere kopurua aldatu zen Europako geografiaren arabera, baina guztien egoerak bilakaera bera egin zuen Europan zehar. - Nekazari askeen gutxiengo batek etekinak lortu zituen konkistetan. Hauek basailutzan sartu ziren aristokraziaren jaun batzuekin, eta horren ondorioz igo egin ziren gizartearen hierarkian. - Nekazari askeen gehiengo batek, berriz, beraien funtsak (lurrak, bereziki) galdu zituen, eta aristokraziaren mende geratu zen. Izan ere, ekonomiaren segurtasun ezak (uzta txar baten ondorioak, esaterako) edo erregeen babesaren falta bikiengoen aurrean, bultzatu egin zituen nekazari askok aristokraziaren mendean sartzea. Jaun babesaren truke, 8 nekazari hauek lurrak galdu ez ezik, askatasuna ere joango dira galtzen poliki-poliki, eta jopuak bihurtuko dira. - Azkenik, beste nekazari batzuen egoera (hauek ere nekazari jabeak eta askeak jatorrian) larritu egingo da

gehiago. Hauek ezingo dute jaun baten babesa lortu, eta funtsa guztiak galduko dituzte. Haien aukera bakarra jornaltzar bezala lan egitea izango da. 2- Mendekotasunean zeuden nekazariak: jopuak. - Jopuak. Menpekotasun ekonomikoan edo judizialean zeuden nekazariak ziren. Latifundioetan bizi ziren eta bere bizitzaren baldintzak okertu egin ziren. Izan ere, mendekotasun ekonomikoa eta pertsonala gogortu egin zen mendebaldeko Europan Goi Erdi Aroan. 3- Esklaboak. Esklaboen negozioa handitu zen arren konkistekin; gero, egoera guztiz aldatu zen, eta, salbuespen batzuekin (Flandrian, Saxonian edo Bavarian) esklaboen kopurua murriztu egin zen Europan X. mendetik aurrera. Esklaboen murrizketaren zergatien artean bi aipa ditzakegu: errentagarritasun ekonomikoaren falta, eta Elizaren eragina. Hala eta guztiz ere, Elizaren jarrera anibalentea izan zen. Hau da, zenbait kontziliotako xedapenetan Elizak debekatu egin zuen esklaboen salmenta hainbat kasutan; baina, bestalde, esan behar da ere, esklaboen askatasuna debekatuta egon zela Elizaren lurretan. Dena den, esklaboen egoera pertsonala hobetu egin zen karolingiarren garaian. Adibidez, latifundio batzuetan epailearen babesa ere izan zuten, eta esklabo batzuk haien jabeen konfiantzazko pertsonak izatera ailegatu ziren: bai administrazioaren arloan, bai militarren arloan (guardia pertsonalak).

Eskandinabiako herriak: Bikingoen hedapena

Oso gutxi dakigu Bikingoei buruz VIII. mendearen bukaera arte. Garai horretan, bikingoak monasterioak erasotzen hasiko dira, eta, 793. urtean, aurreneko aldiz, iturri idatzietan agertuko dira. Lindisfarne monasterioa (Ingalaterrako ekialdeko kostaldean kokatuta) erasotu zutenean, hain zuzen ere. Hortik aurrera bikingoen berriak biderkatu egingo dira, batez ere, monasterioetako erregistroetan. Iturri hauen arabera bikingoak deabruaren irudia izango dira. Bikingoak germaniar herrialdeekin ahaidetuta daude, eta pentsatzen da garai ailegatu zirela Eskandinaviara. Hala ere, ez dakigu noiz. Izenak, wikekin edo badiarekin lotura dauka. Bikingoek, badiaren gizonak ziren, hain zuzen ere. Hori bai, beste izen ere izango dute edo emango diete. Frankoentzat, normandiarrek izango dira, hau da, iparraldeko gizonak. Musulmanentzat, suaren adoratzaileak ziren. Bizantziarrentzat, berriz, varegoak edo rusak ziren; hau da, merkataritzaren gizonak edo Rusiatik zetozenak. 2 VIII. mendearen bukaeran Eskandinaviako gizarteak ezaugarri hauek zituen: - Klanaren edo sendi luzearen garrantzia. Klana familiaz osatuta zegoen, bai odolezko loturak zituzten kideekin, bai morroiekin, bai esklaboekin. Klan bakoitzak buruzagi bat (Bondi) zuen. - Klan bakoitza lurralde batean (Land) zegoen kokatuta. Lurralde hori Bondi baten mendean zegoen, baina Bondik ez zuen botere guztia. Aldiz, klaneko erabaki garrantzitsuenak gizon askeen asanbladak (Þing) hartzen zituen. - Bondiaren gaintik errege bat edo Jarl (armada-buru bat) zegoen, eta Bondi guztiek ere kontseilu bat osatzen zuten erregea aholkatzeko helburuarekin. Erregearen boterea gerlari gaztearen jarrailerian zegoen oinarrituta. Hori bai, ez bazuen ondo gobernatzeko, kargutik ken ziezaioketen. - Nekazaritzak eta abeltzaintzak garrantzi nagusia izango dute bikingoen ekonomian. Artisauak eta merkatariek ere bazeuden, baina gutxienak ziren. Beste profesional ere bazeuden, sendagileak edo juristak esaterako. - Juridikoki, gizartea bi talde nagusi artean zegoen bananduta. Alde batetik, gizaki askeak, landetako asanbladetan parte hartzen dutenak. Nekazariak, arrantzaleak, artisauak, juristak, sendagileak, poetak, merkatariek, nabigatzaileak edo gerlariak ziren, bereziki. Beste aldetik, esklabuak zeuden, gehienak arpilatzetan harrapatuta. Hori bai, hauek haien askatasuna eros zitezkeen, zerbitzuen bertutez diru kopuru bat ordainduz. - Emakumeak betekizun garrantzitsu bat zuen bikingoen gizartean. Bere autoritate morala handia zen gizartean. Esaterako, familiako tradizioen jagolea zen; klanen ohorea defendatzen zuen, gizonen mendekoaren eskubidea gogoratuz eta arbasoen memoria gordetzen zuen. Hedapenaren zergatiak: ¿Zergatik hasiko dira bikingoak Eskandinaviatik kanpo hedatzen VIII. mendearen bukaeran? Arrazoiak edo arrazoiak ez daude oso garbi, eta zenbait hipotesi proposatu egin dira. - Demografiaren hipotesia. Garai horretan Eskandinaviako lurralde batzuk gainjendeztatuta zeuden, eta horrek bultzatu zituzten Eskandinaviatik irtetera. - Merkataritzako bide

berrietara ailegatzea. - Hiru naziotasun handiaren sendotzea Eskandinavian bertan: hau da, Suedia, 4 Norvegia eta Danimarka. Bakoitza interes desberdinekin, baina helburu berdinarekin, hau da, boterea indartzea. Hala eta guztiz ere, lehenengo espedizioen arrakasta izango da sustatzailerik onena hedapena jarraitzeko espedizio handinahikoagoekin. Baina, ¿zeintzuk ziren haien espedizioen arrakastaren zergatiak? Bi faktore aipa ditzakegu: Faktore psikologikoa. Hau da, bikingoen erasoek eragiten zituzten sorpresa eta izuaren eraginak. Izuari dagokionez, gainera, monjeek berek (hauek ziren bikingoen biktima nagusiak) handitu egingo dute bikingoen irudi maltzurra eta krudela haien idazkietan. Horrek, dudarik gabe, handitu egingo du jendearen izua. Faktore estrategiko eta teknikoak. Estrategiari dagokionez, bikingoen erasoak (erasotzaileek hamar edo hamabi itsasontzi erabiltzen zituzten) oso azkarrak izaten ziren, eta ezin zieten uzten haien biktimei laguntza eskatzea, defentsa antolatzea eta ia ezta gordetzea ere. Teknikari dagokionez aipatu behar da, bereziki, nabigazioan erabiltzen zituzten itsasontzi bereziak eta teknika berriak. Bi itsasontzi nagusiak gerrarako langskipak eta garraiatzeko eta merkataritzarako knörrak ziren. Itsasontzi arinak ziren, zingo txikikoak, oso errazak maniobratzeko, aproposenak ibaietan gora joateko. Itsasontzi mota hauetan teknika berri batzuk erabiliko dituzte. 5 Adibidez, gainjarritako bordak, gilak, arraun lema edo bela karratua. Hala eta guztiz ere, bikinkoak ez ziren bakarrik gerlari onak, basatiak, krudelak eta arpilatzaileak. Hori ere baziren, baina bakarrik ezaugarri bat zen, eta ez nagusia (merkatariak, nabigatzaileak, esploratzaileak edo kolonizatzaileak ere izan ziren). Gainera, esan behar da bikingoen herrialde bakoitzak (norvegiarrak, suediarrek eta danimarkarrak) hedapenerako modu desberdinak erabiliko dituela. - Norvegiarrak esploratzaileak izango dira, bereziki. Ozeano Atlantikoaren litorala esploratu egingo dute, Iparraldeko Amerika (Vinland), Groenlandia, Islandia eta Irlandako iparraldea, eta hegoaldean Marokoraino ailegatuko dira. - Danimarkarrek, aldiz, bikingoen irudi topikoa dute. Arpilatzaileak beti prest bai harrapakin lortzeko, bai estortsioak egiteko eta zergak eskatzeko mehatxuaren bidez, bai erreinuak sortzeko mendebaldeko Europako zenbait lurraldetan. Batzuetan arrakastarekin. Esaterako, Normandia Frantzian, eta Dalegag Ingalaterran. - Suediarrek merkataria (edo varegoak) izango dira, bereziki, edo gerlari mertzenarioak. Bere lurralde preziatuena hedapenerako Errusia izango da. Itsas Baltikotik, Itsas Beltzaraino eta Itsas Kaspioraino, varegoen aztarna nabarmena izango da, 6 batez ere, eslaviarren lekukoetan (Novgoroden edo Kieven). Beranduago, IX. mendearen erdialdetik, Bizantziaraino ere ailegatuko dira, merkataria eta gerlari gisa. Bikingoen hedapen nagusia X. mendearen lehenengo hamarkadetan bukatuko da (930. urtearen inguruan). Garai horretan geldituko dira bikingoen migrazio eta espedizio garrantzitsuenak. Hedapena mende bat eta erdi iraun zuen. Baina, zeintzuk izan ziren ondorio garrantzitsuenak? Bi aipa ditzakegu, bereziki. - Europako botere politikoari dagokionez, bikingoek bi eraikin politiko nagusi sortuko dituzte mendebaldeko Europan. Alde batetik, Normandia, Frantzian; eta, beste aldetik, Danelaga, Ingalaterran. Lehena, Normandia, Frantziako erreinuan integratu egingo da, dukerri bat bezala. Bigarrena, Danelaga, Ingalaterrako anglosaxoien monarkian integratu egingo da. Modu honetan, bikingoek lagundu egingo diote monarkia unitarioen bermatzeari. - Europako ekonomiari dagokionez, bikingoek bultzatu egingo dute merkataritza Europan. Alde batetik, merkataritzarako bide berriak irekiz (Europa Atlantikoarekin, ekialdeko Europarekin edo Bizantziorekin, esaterako). Bestetik, baliabide finantzario ugari zabalduz Europako merkatuetan. Hau da, bikingoek ez zuten gordetzen espedizioetan 7 lortutako altxorak, baizik eta haiekin salerosten zituzten Europa Atlantikoaren merkatuetan. Horrek bultzatu egingo ditu Europan bai monetazirkulazioa, bai merkatuen eta burgu berrien sorrena, batez ere, Europako kostalde atlantikoan (Ingalaterran, Herbeheretan, Frantzian) eta Errusiako estepan.

4. GAIA: FEUDALISMOA, JAURGOA ETA LANDA EREMUA

GOI ERDIAROA (V-X MENDEAK)

- HASIERA DATA: 378? 410? 476?

ERDI ARO BETEA (XI-XIII. MENDEAK)

BEHE ERDI AROA (XIV-XV. MENDEAK)

- AMAIERA DATA: 1453?1492?1517?

ERDI AROKO GEOGRAFIA POLITIKOA (XI-XV. MENDEAK)

- Europa denbora pasa ahala Inperio Germanikoaren gainbehera eta 1600.urtetik aurrera estatu txikiagoak agertzen hasten dira. Zatikako politika izango da garrantzitsua. Frantziako erresumak ere aldaketa handiak izaten ditu denboran zehar.
- Estatu handiak > estatu txikiak > XIV.mendean estatu handiak berriro.

ERROMATAR INPERIO SANTUA (X-XV. MENDEAK)

- Karlomagoren inperioa bitan zatitu zen: **Francia Occidentalis** (Frantziako erresuma) eta **Francia Orientalis** (Germaniar mundua+Italia).
- Erromatar Inperio Santua ez zuen mendebaldeko gainerako monarkien antzeko itxurarik hartu → **Inperio** egitura.
- Ekialdetik zetozen **magiarren** eta **eslaviarren** inbasioei aurre egin zioten → Lech-eko gudua (955) → Hungariako erreinuaren sorrerra → Bohemia eta Polinia kristautu. • 962an, enperadorea **Erroman koroatu** zen → Nahiz eta enperadorearen irudiak, homogeneotasun itxura eman, mota askotako lurraldeak osatzen zuten inperioa • Europako ekialdera eta ipar-ekialdera **zabald**u zen.
- Oton III.aren heriotzarekin, **1002an**, oparotasun aldiaren amaiera “inbestidura auzia” → **Borgoia** eta **Italiaren** gaineko kontrola galdu → **Suitza** eta **Herbehereak** independentzia lortu → **Behe Erdi Aroan** Inperioak Europako politikan zuen **protagonismoa galdu** zuen.
- Zazpi **printze hautesleak**: hiru elizgizon (Kolonja, Maguntzia eta Trieko artzapezpikuak) eta lau laiko (Bohemiako errega, Branderburgoko magrebea, Saxonia eta Wittelsbacheko etxeetako buruak).

ERROMATAR INPERIO SANTUA ETA ITALIA. OTON I.AREN TRANSLATIO IMPERII (X. MENDEA)

- IX. mendearen amaieran, Karlomagoren Inperioa desaginda zegoelarik, Inperio Germanikoa lurralde ugarietz osatzen zen: printzerriak, dukerriak, jaurreriak, baita Francia Orientalis delakoan integratutako erreinuak. Horretaz gain, Italiar penintsulako hainbat lurralde inguru alemanarekin harremanak izan ohi zituzten.
- Oton I.a, ekialdeko frankoen oinordekoa, hungariarrak Lech-en garaitu zituen (955), enperadore izendatu zuten Erroman 962an: Germania eta Italiaren iparraldea zeuden inperioaren barne. Honekin, Germaniako Erromatar Inperio Santua jaio zen.
- Bere ondorengoak, Oton II.a eta Oton III.a, Saxoniako etxearen ospea zabaldu zuten,

Italian esku hartuz eta Aitasantutza kontrolatuz.

INPERIO ETA AITASANTUTZA (XI. MENDEA): INBESTIDURA AUZIA

- **Gregorio VII.aren** neurrien aurrean, enperadorearen **eliz karguak** -apezpiku eta abadeak- **izendatzeko ahalmena** mantendu nahi zuen
- XI.mendearen amaieratik aurrera, **bi botere nagusi** nabarmenduko dira **mendebaldean**. Bata lurterra- Inperioa (lurreko gauzak kontrolatzen ditu)- eta beste espiritualak **-Aitasantutza (arimak kontrolatzen zituen)**. Bien arteko borroka: **dominium mundi**. Bi botereen arteko gerra bat eman zen eta enperadoreak galdu zuen Aitasantutzak egin behar zituela inbestidurak onartzuz.

WORMSEKO KONKODATUA (1122)

- Enrike V.a enperadorea eta Kalixto II.a Aita Santuaren arteko akordioa, inbestiduren auziari amaiera eman ziona.
- Enrike V.ak apezpikuen hautaketa Elizaren esku uzten zuen.
- Hala ere, Aita Santuak enperadorearen lurreko ondasunen inbestidurak izendatzeko eskubidea onartzen zuen.
- Praktikan, Enperadoreak bere influentzia mantentzen zuen, baina Eliza izango zen inbestidurak burutuko zituena.

HOHENSTAUFEN LEINUAREN GARAIO INPERIO SANTUA (XII ETA XIII. MENDEAK)

- **Bi familien** arteko borroka: Welf (**guelfoak**) -Inperioaren kontrakoak- eta Satufen (**gibelinoak**), aitasantutzaren etsaiak.
- **Dispersioaren** eta **Italiako arazo**en ondorioz, **printzeen kontrola ezinezkoa** bihurtzen da: Alemania **estatu txikietan zatitzen da**, independenteak direnak ● Itxuraz, **Elizaren garaipena** ziurtatuta zegoen
- Italia ere estatu txikietan banatzen da.

INPERIOAREN LORALDIA: FEDERIKO I.A BIZARGORRIA (1152-1190).

- Germaniako Erromatar Inperio Santua.
- Aita Santuen gaineko aginpide inperiala berrezartzen eta Italiar penintsula kontrolatzen saiatu zen.
- Italiako iparraldeko hirien kontra borrokatu behar izan zen, hauek Milanen gidaritzapean Lonbardiako Liga osatu baitzuten, bere helburu inperialen aurka eusteko. Aita Santuaren laguntza zeukaten eta tropa inperialak garaitu zituzten Legnanon (1176).
- Hirugarren Gurutzadan parte hartu zuen, bertan hil zen eta mito bilakatu zen.

LORALDITIK KRISIRA: FEDERIKO II.A (1215-1250)

- Nagusitasun unibertsala bilatzen zuen azken enperadorea izan zen. Baita Alemania eta Italian boterea mantentzen saiatu zen azkena.
- Bere heriotzarekin Alemania eta Italiako lurraldeen banaketa gauzatu zen. ● Ezegonkortasun garai bat hasi zen, interregno handia: printze alemanek ez ziren gauza izan enperadore berri bat izendatzeko. Bi hautaketa egon ziren: bata guelfoak eta bestea gibelinoak. Honekin botere lokalen gorakada eman zen: hiriak, noblezia, printzeak,

elizgizonak.

- 1273an Habsburgoko Rodolfo enperadore hautatu zuten. Hurrengo mendeetan familia honena izango zen Inperioaren agintaritzatza.

FRANTZIA (987-1285) LEHEN KAPETOAK

- **Hiru mendeetan** zehar **Frantziako koroa** Kapeto leinuaren eskua eta egon zen. Karolingioak ordezkatu zituzten. **Mende bat** behar izan zuen **koroa indartzeko**. Hego Frantzian ez zeukaten influentziarik, ezta Flandriam Txanpainia edo Normandian.
- **Hugo Kapato** bere aitarengandik **Pariseko dukerria** jaso zuen, baita Borgoinaren parte bat. **987an errege bihurtu** zen. Bere korohartzea noblezia eta kleroaren laguntzarengatik eman ahal izan zen
- Botere taldeek errege gisa Kapetoarrak onartu zituzten. **Aliantza** eta **basailutzaren** bitartez, nobleziaren gaintetik ezarri ziren. Monarkiak **kutsu sakratu** bat lortu zuen: erregeen sendatzeko ahalmena

KAPETOEN LORALDIA (1180-1285) FELIPE AUGUSTO II.A (1180-1223) ● Juan

Lurgabearen ahultasunaz baliatu zen Normandia eta Loira inguruko lurraldeak konkistatzeko.

- Kataroen kontrako Gurutzadaz baliatzen da Languedoc eskualdea eskuratzeko, Tolosako kondea eta Aragoiko influentzia baztertuz.
- Inperioaren barne liskarretan parte hartu zuen, aitasantutzaren laguntzaz. ● Hirugarren Gurutzadan parte hartu zuen, Rikardo Lehoi Bihotzarekin batera. ● Bouvineseko batailan garaile (1214).
- Parisko Unibertsitatearen sorrera onetsi zuen.

SAN LUIS (1226-1270)

- Frantziako Luis IX.aren irudian Erdi Aroaren izpiritua ageri da: espiritualitatea eta gerra zaletasuna.
- San Luisek ez zuen lurralde hedapenik burutu. Bere aurrekoek egindakoen gainean, monarkiaren irudia hobetu zuen, ongizate publikoaren eta kanpo eta barne bakearen bermatzaile gisa aurkeztuz. Erregearen irudia bere gorengo mailara eramango du.
- Bere basailuen fideltasuna bermatu zuen, sistema feudalaren baliabideei etekin handiena ateratzen. Liskarretan arbitro gisa agertu zen, eta bere senideak ezarri zituen erreinu ezberdinetan, adibidez, Sizilian (Anjouko Karlos).
- Gurutzaden ideien bultzatzailea izan zen, Zortzigarren Gurutzada zuzendu zuen bere suhiarekin, Nafarroako Teobaldo II.a. Tunez konkistatzeko asmoetan zeudelarik biak hil ziren 1270an. 56 urterekin hil zen. Kristautasunaren babesle bezala ikusten zen eta bere kanonizazioa azkarra izan zen: 1297an.

INGALATERRA ETA NORMANDIA

Abiapuntua (1066) Gilermo, Normandiako dukea, Ingalaterran lehorreratu eta Harold garaitzen du Hastings-eko batailan.

- Bayeux-ko tapizak Ingalaterrako konkista osoa kontatzen du komiki bat izango balitz bezala.
- Oso garrantzitsua da tapiza. Ingalaterrako konkistak Europa baldintzatuko du hurrengo mendetan. Normandiako dukeak Ingalaterra konkistatzen duenean Frantziako erregearen basailua zen paradoxa bat sortuz. Honek 100 urteko gerra ekarriko du.
- Domesday book (1086) Ingalaterran dauden nekazari guztiak ageri dira, herrixka bakoitzako herritarren zerrenda.

Enrique Plantagenet II.a

- Angevinar inperioa
 - Ingalaterra eta Irlandako erregea.
 - Normandiako dukea.
 - Anjou, Maine eta Tu.

Akitaniako Leonor (1122-1204)

- Akitaniako dukearen alaba.
- Frantziako Luis VII. arekin ezkondu zen, berarekin Gurutzadetara joan zen (1147-1149). Ondorengotza maskulinorik gabe banatzen dira (1152).
- Urte berean, Ingalaterrako Enrike II. arekin ezkontzen da. Harekin zortzi seme-alaba izan zituen, erregearengandik urrundu arte, azken honen adulterioa zela eta. ● Rikardoren altxamendua laguntzen du. Bere gatibutasunetik erreskatatzen du. ● Trobalarien babeslea eta literaturazalea.

Rikardo Lehoi Bihotza (1189-1199)

- 1189-1192: Hirugarren Gurutzadan parte hartzen du.
- 1194-1198: Frantziako Felipe Augusto II.a garaitzen du.

Juan Lurgabea: Magna Karta (1215)

- Frantziako Felipe Augustoren aurka aritu zen, azken hau Frantzia eta Ingalaterrako koroak baitu nahi baitzituen. Lur eremu handiak galdu zituen: Évreux, Berry eta Vexineko eskualde normandiarraren parte bat.
- Oton IV.a enperadorearekin aliatu zen Frantzia eta aitasantutzaren aurka borrokatzeko. Porrota jasan zuen, bere lurralde kontinental gehienak galduz: Normandia eta Anjou, Guiena kontserbatuz (Akitania).
- Aitasantutzaren aurkako tirabiren ostean, Aita Santuaren basailu bilakatu zen. ● Bere erregealdian nobleak eta Eliza aurkakoak izan zituen. Hasieranegoera maneiatu ahal izan zuen, baina azkenean Magna Karta zinatua behar izan zuen 1215an.
- Baroiek hainbat kontzesio ematera behartu zuten, 61 klausula zituen dokumentu batean hauek idatziz.
- Kartan Eliza "libre" bat aipatzen da. Lege feudala, merkataritza eta merkatariak, legearen erreforma eta justizia, errege ofizialen jokaera eta errege-basoak aipatzen dira ere.
- Magna Kartak komunitatearen eskubideak babesten zituen, Koroaren aurrean: kontratu feudal bat zen, erregea eta nobleziaren arteko erlazioak erregulatzen zituena. Horretaz gain, erreinuko beste estamentuen eskubide eta pribilegioak bermatzen zituen, nekazariak izan ezik.

ESKOZIAKO ERRESUMA

- Antzinate Berantiarrean piktoak.
- Irlandar gaelikoen eta bikingoen etorrera.
- Erresuma sortu IX. mendean.
- Ingalaterrak Gales konkistatu XIII. mendean Eskozia bereganatzen saiatzen dira.

IRLANDA ERDI AROAN

- Erresuma ugari Botere txandakatzea (High King).
- 1169-1173. urteetan normandiarrek konkistatu zuten.

FEUDALISMOA

Zaia da definitzea feudalismoa, ideia asko sartzen direlako barruan. Hainbat interpretazio daude feudalismoaz hitz egiten dugunean:

- Obedientzia eta zerbitzu harremanak -gerrarako askotan- sortu eta arautzen dituzten erakundeek osatutako multzoa. **Basailutzarik** gabe ez dago feudalismorik (Ganshof, Boutruche).
- **Gizarte mota bat**, non aristokrazia gerlaria eta menpeko nekazalgoaren arteko funtsezko bereizketa da antolamenduaren ezaugarri nagusia (Marc Bloch). March Bloch oso famatua bilakatu zen historia nola ekiten zen aldatzen lagundu zuelako. Hasiera batean, historia oso politikoa zen, baina gauzak aldatu zirenean berak bere ekarpena egin zuen Erdi Aroan. Berak I. Mundu Gerran parte hartu zuen, eta II. Mundu Gerran ofiziala izan zen. Beranduago, erresistentzian sartu zen, eta frankotiradore bezala jardun zuen. Hala ere, gestapoek harrapatu eta fusilatu egin zuten gutxira.
- **Gizarte egitura bat**, non elite menperatzaile batek (jaunek), gehiengo menperatu bat erabiltzen dute produkzio indar gisa (Bonnassie, Bois). Gaur egun interpretazio hau da zabalduena, feudalismoa sistema bat kontsideratzen duena.

Zer da feudalismoa?

“Erregimen soziala, nekazarien lanaren soberakinaren konfiskazioan oinarritzen zena eta soberakin horren banaketa talde menperatzaileen artean basailutza sarean eta kontentsazioen -*feudoen*- bitartez bermatzen zuena” P. Bonnassie.

Definizio orokor bat: Erregimen zaharreko antolaketa ekonomikoa, soziala eta politikoa, XI. mendetik XVIII. mendera.

Feudalismo klasikoak ez zuen asko iraun (XI-XIII) , (XIII-XV) feudalismo bakarta eta gero feudalismo garatua.

EUROPA FEUDALAREN SORRERA

- **Feudalismoaren ezaugarria**: elkarrekiko betebeharren harreman pertsonaletan oinarritutako sistema politikoa, feudo baten bidez egituratuta (lurralde-ondasuna). ● **Ekoizpen modu feudala**: aristokraziak lurra kontrolatu eta nekazariak lantzen duten nekazaritza-sistema.
- **Gizarte feudalaren ezaugarriak**: botere erreala ahultzea eta ondorioz autoritatea zatikatzea, harreman politikoak lurren kontrolean oinarritzen direlako eta morrontza hedatzea.
